

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Azkoitiko Udala

Ayuntamiento de Azkoitia

2010



AURKIBIDEA/ÍNDICE

0 LABURDURAK	5
I SARRERA	7
II IRITZIA	8
II.1 UDALA ETA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	8
II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	10
II.2 AZKOITIA LANTZEN, SA UDAL SOZIETATE PUBLIKOA.....	11
I.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
I.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	14
III.1 OROKORRA.....	14
III.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA.....	14
III.3 ZERGA SARRERAK.....	14
III.4 LANGILERIA.....	15
III.5 KONTRATAZIOA.....	15
III.6 DIRU-LAGUNTZAK.....	17
III.7 AZKOITIA LANTZEN, SA UDAL SOZIETATE PUBLIKOA.....	17
IV. FINANTZA ANALISIA	18
V URTEKO KONTUAK	23
ALEGAZIOAK	31
0 ABREVIATURAS	59
I INTRODUCCIÓN	61
II OPINIÓN	62
II.1 AYUNTAMIENTO Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES.....	62
II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD.....	62
II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	65
II.2 SOCIEDAD PÚBLICA MUNICIPAL AZKOITIA LANTZEN, SA.....	65
I.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD.....	64
I.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	66

III CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	68
III.1 GENERAL.....	68
III.2 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	68
III.3 INGRESOS FISCALES	68
III.4 PERSONAL	69
III.5 CONTRATACIÓN	69
III.6 SUBVENCIONES	71
III.7 SOCIEDAD PÚBLICA MUNICIPAL AZKOITIA LANTZEN, SA	71
IV ANÁLISIS FINANCIERO	72
V CUENTAS ANUALES.....	77
ANEXOS	85
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	85
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	86
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	88
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	89
A.5 Enajenación inversiones reales	90
A.6 Gastos de personal	91
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios.....	93
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	94
A.9 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales.....	95
A.10 Créditos de compromiso.....	96
A.11 Pasivos financieros	98
A.12 Deudores presupuestarios.....	99
A.13 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	100
A.14 Clasificación funcional del gasto	101
A.15 Contratación	102
A.16 Sociedad Pública Municipal Azkoitia Lantzen, SA.....	104
ALEGACIONES	113

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 15a
Vitoria-Gasteiz, 15 de mayo de 2013



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
LHL	2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Azkoitiko Udalaren 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, oroitidazkia eta likidazioa.

Azkoitia Lantzen, SA Sozietate Publikoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarrituak egotea egiaztatu dugu eta beharrezko irizitako proba osagarriak edo auditoriako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Azkoitiko udalerriak 11.351 biztanle ditu 2010eko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bere egituran, udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- Zubiaurre Elkargune Institutua Toki Erakunde Autonomoa; xede soziala udalerrian kirola, kultura, gazteria eta aisialdiko jarduerak orokorrean kudeatzea da.
- San José Egoitza Toki Erakunde Autonomoa; xede soziala arreta osoko zerbitzua ematea da, hirugarren adinekoei zuzendutako laguntza zerbitzuak kudeatuaz.
- Azkoitia Lantzen, SA Udal Sozietate Publikoa, udalaren partaidetza % 100ekoa da; xede soziala lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta erostea da eta erabilera publiko zein pribatukoak izan daitezkeen etxebizitzak, industria eraikinak, zerbitzuak eta elkarte-zuzkidurak kudeatzea.

II. IRITZIA

II.1 UDALA ETA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Udalak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera behin-betiko atxiki du lan kontratu finkoko udal langile bat Zubiaurre Elkargune Institutua Toki Erakunde Autonomoaren koordinatzaile lanpostura; horretarako, 2009ko maiatzaren 11ko Udalbatzan onetsitako Giza baliabideak arrazoibideratzeko programan aurreikusitako mugikortasun funtzionaleko prozesua baliatu du; esleitu zaizkion egiteko eta ordainsariak, baina, jatorrizko lanpostuan zituenak baino handiagoak izan dira. Atxikipena zuzenean gauzatu da, Funtzio Publikoan lanpostuen zuzkiduran buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.

KONTRATAZIOA (ikus A.15)

2. Udalak eta Zubiaurre Elkargune Institutua Toki Erakunde Autonomoak, hasiera batean esleitutako kontratuak behin amaitu ondoren, 2010eko ekitaldian ondoko gastuak egiten jarraitu dute, kontratazioko araudian legez ezarritako prozedurak saihestuz:
 - Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua 2004ko abenduaren 15ean esleitu zen lehiaketa publiko bitartez 697.764 euroren zenbatekoan, 4 urteko aldirako. Indarraldia amaitu ondoren, enpresa esleipendunak 2010eko azarora bitartean zerbitzu ematen jarraitu zuen eta data horretan beste esleipen bat egin zen prozedura irekia baliatuta. Udalak 2010eko ekitaldian 289.083 euroren gastua egikaritu du.
 - Gazte informaziorako bulegoa kudeatzeko zerbitzuaren kontratua 2003ko urtarrilaren 13an esleitu zen lehiaketa publiko bitartez 121.031 euroren zenbatekoan, 4 urteko aldirako. Indarraldia amaitua delarik, 2007ko maiatzaren 4ko alkatetzaren dekretu bitartez, kontratua luzatu da beste esleipen bat egin arte eta 2010eko ekitaldian fakturatutako zenbatekoa 50.225 eurorena izan da. Gainera, luzapen horretan enpresa berari esleitu zitzaion ludoteka kudeatzeko zerbitzua; 2010eko ekitaldian kontzeptu horrekin 53.247 euroren gastua gauzatu da.



3. Lorezaintza zerbitzuaren kontratuaren lizitazioa 2008ko ekainaren 5ean esleitu zen lehiaketa publiko bitartez, guztira 338.305 euroren zenbatekoan eta 2 urteko aldirako; lizitazioa ez da argitaratu ez DOUEn, ez BOEn, urteko bakarra hartu baita aintzat, eta ez kontratuaren prezio osoa; horrek APKLTBren 203. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Azkoitiko Udalak eta bere Toki Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Azkoitiko Udalak 2010eko abenduaren 31n 2009ko ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funttsaren likidazio negatibotik eratorritako zor saldoa erregistratu du ondarean 1,5 milioi euroren zenbatekoan; Gipuzkoako Foru Aldundiari itzulketa 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan egingo zaio, urte horietako itunpeko zergen partaidetzatik konturako ordainketak proportzionalki murriztuta. Aurrekontuan, kopuru horiek 2009ko ekitaldi itxieran “Transferentzia arruntak” kapitulutik murriztu dira eta aldi berean, diru-sarrera “Finantza pasiboak” kapituluan aitortu da; honenbestez, ez dira 2010eko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinetik murriztu. 2010eko ekitaldiko UFFF'tik eratorritako likidazio negatiboa, 2011ko ekitaldiaren konturako aurrerakinen kontura itzultzeko 46.970 eurorena, “Transferentzia arruntak” kapituluko sarrera modura deskontatu da eta itzultzeko dagoen saldoa aurrekontuz kanpoko kontu batean dago jaso.

1. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2010eko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinarean, Egoera Balantzearen eta Funtts Propioen gainean:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontua	Ondarea		
	Diruzaintza geldikina	Aktiboa	Pasiboa	Funtts propioak
Sortu gabeko eta 10.12.31n erregistrat. eskubideak				
A.4 Musika eskolaren finantzaketan Elren diru-lag. bikoiztasuna	(64)	(64)	-	(64)
Ondare doiketak				
A.3 2010eko 4. hiruhilekoan zaborren errolda	-	243	-	243
A.5 Lurraren udal ondarea, Urrategi Bidea 32. sektorea	-	1.428	1.455	(27)
A.9 10-12-31n eskrituratutako erosketaren aurrerakinak	-	(204)	(204)	-
GUZTIRA	(64)	1.403	1.251	152

Epaitegi honen iritzira, 1. idatz-zatiko ez-betetzearen eragina salbuetsita, Azkoitiko Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoen Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



II.2 AZKOITIA LANTZEN, SA UDAL SOZIETATE PUBLIKOA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

ONDARE ERAGIKETAK (ikus A.16)

1. Sozietate Publikoak lurzoruaren honako besterentze hauek egin ditu, etorkizuneko hirigintzako aprobetxamenduak bideratuko dituzten hirigintzako aldatetak izapidetzeari meneraturik; besterentzeak zuzenean eta administrazioko espedienterik gabe gauzatu dira eta eragiketa justifikatuko duen txostenik, ez prezioa justifikatuko duen baloraziorik batere egin gabe; horrek guztiak LHLren 116. artikulua urratzen du:
 - Txalon Erreka 10.1 sektoreko 2 lursail besterendu zaizkie bi merkataritza sozietateri, 6,61 milioi euroren zenbatekoan. Azkoitia Lantzen, SAK eta sozietate batek 2006ko abenduaren 29an bi enpresek osatzen zuten Txalon Erreka EABB desegitea izenpetu zuten. Akordio horretan Azkoitia Lantzen, SAK aipatutako sozietateari lursail hauek saldu behar izan zizkion eta erosleak eskubide hori hirugarrenei subrogatzeko eskumena gorde zuen. Nahiz berariazko subrogaziorik ez dagoen, ez dago erasota sozietateak inongo erreklamaziorik egin duenik. Merkataritza sozietateekiko kontratuak 2006ko abenduaren 29an eta 2007ko urtarrilaren 24an izenpetu ziren eta Azkoitia Lantzen, SAK 2007ko martxoaren 14an berretsi zituen.
 - Txalon Erreka 9.1 areako lursaila besterentzea, 3,42 milioi euroren zenbatekoan.
2. Sozietate Publikoak 2010eko abenduaren 22an gauzatutako kontratuan lursail bat besterentzearen prezioa finkatu du (nahitaezko lagapena ordaintzetik aske) eta Egino 27. sektoreko beste lursailaren erosketa aukeraren erosketa eskubidearen prezioa, industri eraikin bat etorkizunean eraikitzeko, guztira 4 milioi euroren zenbatekoarekin (BEZik gabe). Prezio hau balorazio txostenik bideratu gabe ezarri zen, besterendutako ondasunaren merkatu balioa ezagutzeko bide emango duena, LHLren 116. artikulua urratuz. Egoera balantzearen "Izakinak" idazpuruan jasotako lursail horien kostua, 2010eko abenduaren 31n, 6 milioi eurorena izan da. Nolanahi den ere, 2012ko otsailaren 23ko Osokoak onetsitako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 2. aldaketa zehatzean, udal teknikariek egindako balorazioa 4,23 milioi eurorena izan da.

Epaitegi honen ustetan, Azkoitia Lantzen, SA Udal Sozietate Publikoak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Sozietatearen Egoera balantzeko “Izakinak” idazpurua erosketa prezioarekin balioztaturiko lursail eta eraikuntzek osatzen dute. Sozietateak 2010eko abenduaren 31n ez zuen, eta txosten hau idatzi dugun datan ere ez du, aditu askeek egindako tasaziorik, egungo balio garbi egingarria zein den jakiteko bide emango duena; honenbestez, ez dakigu beharrezkoa ote litzatekeen erregistratutakoak baino narriadura handiagoren bat aitortzea.
2. Sozietate Publikoak 2010eko ekitaldi hasieran “Zordunak” idazpuruan 672.000 euroren saldoa erregistratua du 2006ko abenduaren 29an desegindako Txalon Erreka EABBren sozietatearekin izenpetutako kontratuaren indarrez, merkataritza sozietate honek AU 29 Gurutzeaga gunearen hirigintzako aprobetxamenduagatik ordaintzeko duen obligazio kontzeptuan, Azkoitia Lantzen, SAK Azkoitiko Udalari aurreratutakoa. Fiskalizatutako ekitaldian zehar kontularitzan zorra Udalari eskualdatzen zaio 2010eko martxoaren 4an Osokoak hartutako erabakiari jarraiki, hau da, aurreratutako hirigintzako aprobetxamendua Azkoitia Lantzen, SArri itzultzekoa eta gerora, hirigintza gainbalioaren likidazioa gunearen sustatzaileari kitatzekoa. Txosten hau idatzi dugun datan gaur egun sustatzaile den enpresak Udalari jarritako 3 auzi daude, bata birsailkapen proiektuaren behin-betiko onespeneraren aurka; bestea, aurrerakinaren itzulketa erabakiaren aurka eta azkena, sustatzaileari eragindako hirigintzako gainbalioaren likidazioaren aurka. Lehenengo kasuan ezespren epaia jaulki zen eta Auzitegi Gorenean errekurritua dago eta gainerako bi kasuetan epaia ebatzi zain daude (ikus A.10).
3. 2010eko abenduaren 31ko Sozietate Publikoaren Urteko Kontuek ez dute data horretan hartutako konpromisoari buruzko ohar argigarririk gehitzen; konpromisoak ez daude Egoera Balantzearen pasiboan jasoak (ikus A.16).
4. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2010eko abenduaren 31ko Egoera Balantzearen gainean:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aktiboa	Pasiboa	Diru-lag.	F. Propioak
A.16 Defecto amortización y aplicación subvenciones piscinas Ugarte .	(323)	(60)	(190)	(73)
A.16 Egino Berri 27 sektorearen galera narriadura itzulezina	(2.006)	-	-	(2.006)
A.16 Ugarte Igara 14.2 galera narriadura itzulgarria	(389)	-	-	(389)
A.16 Aurreko ekitaldietako lursailen erosketa.....	354	354	-	-
GUZTIRA	(2.364)	294	(190)	(2.468)

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako zalantzek izan dezaketen eragina eta 3. eta 4. paragrafoetako salbuespenak alde batera, Azkoitia Lantzen, SA Udal Sozietate Publikoaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2010eko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, 2010eko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldian zehar bere eragiketena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDOKO GERTAKARIAK

Gogoan izanik 2011ko ekitaldi itxieran balantzearen arabera sozietatea 1,9 milioi euroren maniobra funts negatiboa izatera aldatu dela, Azkoitia Lantzen, SAK bere jardueraren aribidean aktiboak gauzatu eta pasiboari aurre egiteko gaitasuna, erantsitako urteko kontuetan jasotako kopuru eta sailkapenaren arabera, kontularitzan jasoak dauden kopuruetan izakinen gauzatze mailari eta finantza oreka berrezartzeko eskura litezkeen balizko saneamendu neurriei meneratzen zaie.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 OROKORRA

- San Jose Egoitza Udal Erakunde Autonomoaren kudeaketa Udalean dago zentralizatua eta duen izaera administratiboa aintzat hartuta, kudeaketa gainerako zeinahi udal sailen parekoa da. Pertsona juridiko bereziak izateak berezko atalen mantentze kostuak eta administrazio kostuak eragiten ditu; komenigarria litzateke molde horrek eragiten dituen abantailekin alderatzea.

III.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2010eko ekitaldiaren Kontu Orokorra 2011ko abenduaren 21eko Osokoak onetsi du, 21/2003 FAREN 63.4 artikulua horretarako ematen duen epea gaindituz.
- Udalak ez du formalki erabaki udal jabetzako ondasun higiezin eta higigarrien atxikipena, zeinetan San Jose Egoitza Erakunde Autonomoak jarduera gauzatzen duen; horien balioa Udalaren Egoeraren Balantzean dago jaso 2010eko abenduaren 31n eta amortizazioa ekitaldiko gastu modura erregistratzen da.

III.3 ZERGA SARRERAK

- 2010eko ekitaldian indarreko EIOZaren gaineko zerga ordenantzak hainbat subjektu pasiboren alde zerga kuotaren gaineko % 95eko hobariak aurreikusten ditu; ez du, baina, baldintzatzen hobari-gai diren egintza zergagarriak interes berezi edo udal erabilerako izendatu behar izatea, inguruabar sozial, kultural, historiko-artistiko edo enplegua sustatzekoak daudelako; horrek guztiak EIOZ arautzen duen uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5. artikulua urratzen du.
- 2010eko urtean indarrean zegoen zorren ordainketaren zatikapen eta gerorapen baldintzak arautzen dituen udal ordenantza Alkateak onartu zuen 2008ko azaroaren 4an eta ez zen GAOn argitaratu; horrek uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikulua urratzen du, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena, eskumena Udalbatzari aitortzen diona eta aldizkari ofizialean argitaratzea nahitaezko egiten duena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalak 2010eko irailaren 7an Olimpia eraikinean etxebizitzak eraikitzeko obretarako obra lizentzia bat eman zuen, proiektu aurrekontuaren % 7aren pareko abala aurkezteari meneratua, 212.644 euroren zenbatekoan eta 3 hilabeteko gerorapenarekin; bermea 2011ko azaroaren 11n aurkeztu zen, obrak hasi ondoren. Udalak abala ezarritako epeetan aurkezteko baldintzak betetzeko eskatu behar zukeen.

III.4 LANGILERIA

- 2010eko ekitaldian indarrean zegoen LZk lan kontratupeko langileentzat gordetako 8 lanpostu barne hartzen ditu (arkitekto teknikoa, delineatzailea, 3 administrari, kultur politikako teknikaria, gizarte laguntzailea eta gazteria eta turismoko teknikari laguntzailea); lanpostu horiek, ordea, funtzionarioentzat gordeta behar lukete egon, EFPLren 19. artikulua aurreikusten duen moduan.
- 2010eko ekitaldian zehar, alkatetzako bi dekreturen bidez ikastolako atezainaren eta kontratazio, erosketa eta langileen teknikariaren postuak behin-betiko betetzeko deialdiak onartu dira, hurrenez hurren, 2010eko uztailaren 6ko eta azaroaren 29ko GAO n argitaratu zirenak, aldeaz aurretik enplegu publikoko eskaintza onartu gabe, nahitaezkoa dena, EFPLren 23. artikulua urratuz.
- Udalak bi langileri ordainsari osagarria ordaindu die San Jose Egoitza Erakunde Autonomoarentzat eta Oteiza Fundazioarentzat egindako lanengatik; ordea, Udalbatzak ez ditu osagarri horiek udal lanpostuei gehitzea, ez ordaindutako zenbatekoak ere onartu.

III.5 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean Udalean eta Udal Erakunde Autonomoetan indarrean zeuden 9 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zaizkigu (ikus A.15):

- Espedientea

Udalak 1 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean ez da espedientea izapidetu aurretiko proiektuaren zuinketa akta egin eta horrek SPKLren 110. artikulua urratzen du (2. espedientea).

San Jose Egoitzak aleko prezioetan esleitutako kontratu bati dagozkion pleguek, bestek beste, lehiatzaileen eskarmentuan oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 15. eta ondoko artikuluek eta ezartzen duten moduan (9. espedientea).

Udalak 1,7 milioi euroan esleitutako 2 kontraturen pleguek prezioa balioztatzeko hainbat formula aritmetiko ezartzen dituzte; formula horiek baina, objektiboak eta publikoak izan arren, eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzte, aurrez zehaztutako beheranzko kopuru batetik aurrera puntuaketa berdindu egiten baitute (2 eta 5 espedienteak).

Udalak esleitutako 4 kontratutan, 3, 946.713 milioi euroan eta 1, aleko prezioetan, pleguetan jasotako formulak hasiera batean irizpide horretarako aurreikusitako



haztapena gutxitu egiten du. Aztertutako espedienteetan hasiera batean aurreikusitako haztapenak, 30, 20 eta 9 puntukoak, hurrenez hurren, 1,78, 0,93 eta 3,11 puntura murriztuak geratu dira eta horietako batean ez du eraginik izan lehiatzaile bakarra zegoelako (1, 3, 4 eta 7 espedienteak).

Horrezaz gain, Udalak 4,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu 1en pleguetan eskatzen den behin-behineko bermeak ez du APKLTBren 35. artikulua ezartzen duen zenbatekoa osatzen, izan ere, ehunekoak urteko baten arabera kalkulatu dira eta ez, kontratuaren prezio osoaren arabera (6. espedienteak).

- **Esleipena**

Udalak aleko prezioetan esleitutako kontratu 1ean, irizpideen balorazioa, zeinetan zenbatespena balio-judizio baten baitakoa den, formulak baliatuta kalkulatu diren irizpideak balioztatu aurretik egin da, SPKLren 134.2 artikuluan aurreikusitakoaren aurka. (4. espedienteak).

Udalak esleitutako 2 kontratutan, bata aleko prezioetan eta bestea, 630.300 euroan, zeinetan formulak aplikatuta automatikoki neurgarriak diren irizpideek balio-judizio baten baitako zenbatespena duten irizpideak baino haztapen txikiagoa duten, azken hauen balorazioa ez du gutxienez 3 adituk osatutako batzordeak edo berariaz gaitutako organismo tekniko batek egin eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (4 eta 5 espedienteak).

Udalak aleko prezioetan irizpide anitzekin prozedura ireki bidez egindako kontratu baten behin-behineko esleipena, proposamenen irekieratik 2 hilabetetik gorako epean gertatu da eta pleguek ez dute bestelako eperik zehazten, SPKLren 145.2 artikulua urratzen duenaren aurka.

Guztira 5,3 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan, gordailatutako behin-betiko bermea eta pleguetan eskatutakoa, urteko 1en zenbatekoaren gaineko ehunekoari dagokio eta ez kontratuaren iraupen osoaren gaineko ehunekoari; horrek APKLTBren 36. artikulua urratzen du (3 eta 6. espedienteak).

Udalak esleitutako lau kontratutan, 1 aleko prezioetan eta 3, 5,7 milioi euroan, behin-betiko bermea ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu, APKLTBren 93.2 artikulua edo SPKLren 138.2 artikulua urratuz (1, 3, 4 eta 6. espedienteak).

- **Egikaritza eta harrera**

Udalak 400.000 euroan esleitutako kontratu 1ean obra behin-behineko esleipena baino lehenago gauzatu da, kontratazio prozeduran lehiatzaile bakarra zegoela (1. espedienteak).

Udalak 1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean, ez da berariaz erasota utzi zuinketa egiaztatze aktan obrak egiaz eten direla, ezta gerora ere kontratazio atalak ez du obrak abiarazteko ebazpenik eman, APKLEOren 139. artikulua (2. espedienteak).



Udalak 400.000 euroan esleitutako obra kontratu batean harrera akta ez da obrak amaitzean egin, baizik eta azken ziurtagiria onesteko emandako 3 hilabeteko epe barruan, SPKLren 218. artikuluan aurreikusitakoa (1. espedientea).

III.6 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak 2010eko ekitaldian udal esparruko kultur eta kirol elkarteei elkarlehia erregimenean eta diru-laguntza kontzeptuarekin, hurrenez hurren, 78.716 eta 104.297 euroren diru kopuruak eman dizkie; horiek, ordea, ez dira aurkeztutako eskabideak alderatuta eskuratu, horien arteko hurrenkera ezartzeko bide emango zuena, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua urratuz.

III.7 AZKOITIA LANTZEN, SA UDAL SOZIETATE PUBLIKOA

- 2004ko apirilaren 28ko eskritura publiko bitartez Azkoitia Lantzen, SA Sozietate publikoak merkataritza sozietate batekin batera Txalon Erreka ABEE sortu zuen eta horren xede soziala ondasun eta hirigintzako aprobeitxamenduak erostea da, sektore horretan egoitzatarako eraikinak kudeatu, egokitu, planifikatu, urbanizatu, birsailkatu eta eraikitze jarduerak garatzeko, gehienez 4 urteko iraupenaldiarekin eta hurrenez hurren % 51 eta % 49ko partaidetzarekin. Bi aldeek ABEE desegiteko erabakia 2006ko abenduaren 29an izenpetu zuten eta Azkoitia Lantzen, SAK halaxe baitetsi zuen 2007ko urtarrilaren 11n. Txosten hau idatzi dugun datan, desegitea eskrituran jasotzeko dago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2008(*)	2009(*)	2010	2008	2009	2010
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	5.297	4.536	4.806	478	403	423
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	6.788	6.144	7.084	612	545	624
Ondare sarrerak (5. kap.).....	147	1.016	66	13	90	6
A. Diru-sarrera arruntak	12.232	11.696	11.956	1.103	1.038	1.053
Langile gastuak (1. kap.).....	3.358	3.346	3.278	303	297	289
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	5.571	5.363	5.084	502	476	448
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.551	1.717	1.913	140	152	168
B. Funtzionamendu gastuak	10.480	10.426	10.275	945	925	905
Aurrezki gordina (A-B)	1.752	1.270	1.681	158	113	148
- Finantza gastuak (3. kap.).....	233	122	236	21	11	21
Emaitza arrunta	1.519	1.148	1.445	137	102	127
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	796	1.183	2.183	72	105	192
Aurrezki garbia	723	(35)	(738)	65	(3)	(65)
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	1.167	37	517	105	3	45
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	1.112	2.500	3.459	100	222	305
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	5.226	5.695	1.234	471	505	109
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	1.482	6.421	26	133	570	2
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(4.429)	(9.579)	2.716	(399)	(850)	239
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(2.910)	(8.431)	4.161	(262)	(748)	366
Diruzaintzako geldikina	2.160	1.840	3.867	195	163	341
Zorpetzea 12/31n	5.623	12.848	11.072	507	1.140	975

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Sarrera hauek 2010ko ekitaldian % 2 egin dute gora eta % 4 behera, berriz, 2009ko ekitaldian aurre-aurreko ekitaldiarekiko. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 6 egin dute gora 2010eko ekitaldian eta % 14 murriztu dira 2009koan, ondoko kontzeptuetako bariazioak gailentzen direla:
 - Zerga zuzenen kontzeptuko diru-sarrerek % 7 egin dute gora aztertutako aldiaren eta neurrizkoa izan da 2010eko ekitaldiko igoera, % 1a alegia, fiskalizazio-gai izan den ekitaldian tipo zergagarriak izoztu izanaren ondorioz.
 - Tasa eta bestelako sarrerek eragindako diru-sarrerak % 31 murriztu dira aztertutako aldiaren (% 6ko beheraldia 2010eko ekitaldian eta % 27koa 2009koan), bajako sarean



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zerbitzuaren kudeaketa bi administrazioek hitzarmena sinatu ostean Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eskualdatu izanaren ondorioz, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarrarekin. Horrez gain, zaborren bilketa tasa % 39 gehitu dela aztertutako aldiari azpimarratu behar dugu, 2009 eta 2010eko ekitaldietan, hurrenez hurren, tasak % 33 eta % 3,55 gaurkotzeak eragindakoa; hori justifikatzen da Urola Erdiko Zerbitzuen Mankomunitateak etorkizuneko errauskailuaren kostuei aurre egiteko fakturatutako zerbitzuaren kostua igo izanarekin.

- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Diru-sarrera hauek % 15 gehitu dira 2010eko ekitaldian; aldiz, 2009koan, aurreko ekitaldiarekiko % 9 egin zuten behera. Hori justifikatzen du, nagusiki, UFFF kontzeptuan itunpeko zergen diru-bilketatik eratorritako aitortutako diru-sarrerak izan duten bilakaerak, 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietan hurrenez hurren, 6,1, 5,2 eta 6,1 milioi eurorenak izan baitira.
- **Ondare sarrerak:** Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetutako hitzarmenaren indarrez, azpimarratzekoak dira ondotik zehaztutako kontzeptuekin 2009ko ekitaldian aitortutako diru-sarrerak:
 - Partzuergoak Udalari ekitaldi horretan bajako sareen azpiegiturak erabiltzeagatik ordaindu beharreko 518.843 euroren kanona.
 - Partzuergoaren eta Udalak onartutako tarifen arteko aldeagatik konturako 431.034 euroren kobrantza; udalaren tarifak handiagoak eta kontsumitzaileei eragingarriak zaizkie; Udalak urtero tarifa horiek Partzuergoak onartzen duen urteko igoeraren erdiarekin gehitzeko konpromisoa du, bi tarifen arteko bateratasuna lortzearren. Alde horren ondorioz 2009 eta 2010eko ekitaldietan egin diren likidazioak, hurrenez hurren, 245.388 eta 234.100 eurorenak izan dira.

Funtzionamendu gastuak: Sarrera hauek % 2 egin dute behera aztertutako aldiari. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Langile gastuak:** Aztertutako aldiari % 2 egin dute behera (2010eko ekitaldian izandako bariazioaren pareko), batik bat onartutako soldata murrizketaren, udal langile bat Zubiaurre Elkargune Institutura atxiki izanaren eta aldi baterako langileen kontratazio kopurua jaitsi izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa:** % 9 egin dute behera aztergai izan dugun aldiari (% 5, 2010eko ekitaldian eta % 4, 2009koan). Hona hemen bariazio aipagarrienak:
 - Kontzeptu hauen izenean ez da gasturik sortu: ur hornidura; bajako sareen azpiegitura kanona; eta zerbitzuaren kudeaketa kostua 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eskualdatu zitzaionetik, 2008ko ekitaldian guztira 716.616 euroren gastua eragin zuena.
 - Urola Erdiko Mankomunitateak hiri hondakinak bildu eta suntsitzeagatik fakturatutako gastua % 84 gehitu da aztertutako aldiari, etorkizuneko



errauskailuaren kostuei aurre egiteko fakturatutako zerbitzuaren kostua igo egin baita.

- 2010eko ekitaldian zehar birnegoziatu egin dira kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuaren kontratuak eta % 7 murriztu da bi kontratuen fakturazioa.
- **Transferentzia arruntak:** Aztergai izan dugun aldian % 23 gehitu dira. Ondoko kontu-sailetako bariazioak dira azpimarragarrienak:
- Zubiaurre Elkargune Institutua Erakunde Autonomoari transferentziak: Transferentzia horien bitartez Udalak berdindu egin du erakunde autonomoak jardueraren garapenean sortutako defizita. Izan ere, kontzeptu honekin aitortutako diru-sarrerek 289.000, 385.560 eta 810.615 euro egin dituzte 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietan, hurrenez hurren. Azken 2 ekitaldietan izan diren igoerak jardueraren kostuak gora egin izanak eragin ditu, batik bat Erakunde Autonomoak Azkoitia Lantzen, SARI urteko 313.200 euroren kanona ordaintzeko obligaziotik eratorritakoa, sozietate publikoaren jabetzako instalakuntza berriak (Ugarte Igarako igerileku estaliak eta Elkarguneko eraikin sozio-kulturala) 2009ko ekainaren 15etik aurrera lagatzeko erabakiaren ostean.
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntza-GLL: Azkoitiko Udalak laguntzak ematen ditu EAEren ekarpenen mugara arte eta ez du kontzeptu horrekin bere aurrekontuen kontura gastu osagarriak bere gain hartzen. Gastuak % 53ko igoera izan du 2009ko ekitaldian, EAEren Gobernu Kontseiluak onartutako aparteko ekarpena dela eta, izan ere egungo egoera ekonomikoak laguntzen eskatzaile kopurua igotzea ekarri du; eta 2010eko ekitaldian, berriz, % 52ko beheraldia, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua indarrean sartu izanaren ondorioz, etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzkoa, zeinaren indarrez Sarreren Berme Errenta (lehen GLLn jaso) jasotzen dutenei etxebizitza alokatzeagatik emandako laguntzak onuradunei zuzenean ordaintzen dien EAEk.

Aurrezki gordina: Magnitude hau % 4 jaitsi da aztertutako aldian, nahiz balio absolutuetan 2010eko ekitaldian 2009ko ekitaldiarekiko bere onera etorri den; izan ere, UFFF'tik eratorritako diru-bilketak gora egin du eta Udalak gastu arruntari eutsi asmoz hainbat neurri bideratu ditu, hala nola, udal langileen soldata murrizketa eta kanpora bideratutako zerbitzuen beheranzko negoziazioa.



Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Finantza zamak % 135 egin du gora aztertutako aldian, batik bat, "Pasibo finantzarioak" kapituluan 2009 eta 2010eko ekitaldietan UFFFren 2008ko likidazio negatiboa, 815.291 eurorena, erregistratu delako eta 2009an aurreko ekitaldiko Diruzaintza Geldikinaren kontura hitzartutako mailegu batetik milioi 1 euroren alde aurreko amortizazioa egin delako 2010eko ekitaldian; honakoa, 2009ko abenduaren 15eko Osokoak onetsitako ekonomia-finantza Planean aurreikusitako neurria da. Zorpetze maila murrizteko ahalegin honek ekarri du 2010eko ekitaldian aurrezki garbiak 737.132 euroren saldo negatiboa izatea.

Udalak zorpetutako finantza zorra % 97 gehitu da aztertutako aldian, Elkargune eraikin sozio-kultural berriaren, kanpoaldeko igerilekuen eta kiroldegi zaharra handitzeko lanen finantzaketari aurre egiteko 2009ko ekitaldian guztira 9,4 milioi euroren 2 mailegu hitzartu ondoren; 2010eko ekitaldian alde aurretik milioi 1 euro amortizatu da. Gainera, gogoan izan behar dugu 2010eko abenduaren 31n Udalak ordaintzeko duela Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren 2009ko behin-betiko likidazio osoa, 1,5 euroren zenbatekoa egiten duena.

Kapital eragiketen emaitza: Azpimarratzekoa da 2009ko abenduaren 15eko Osokoak Ekonomia-finantza Plana onetsi ondoren 2010eko ekitaldian kapitalezko gastuei eusteko gauzatu den politika, aurreko ekitaldietan inbertsioetarako gastuen kopuru handiaren aldean; eta hori bistakoa da 2010eko ekitaldiaren kapitalezko eragiketen emaitzaren saldo positiboan (horri kendu behar diogu gauzatu ez diren obren kontzeptuan jasotako diru-sarrerek eragindako finantziazio-desbideratze positiboak, 2,4 milioi eurorenak) eta 2008 eta 2009ko ekitaldietako saldo negatiboan, 4,4 eta 9,6 milioi eurorenak, hurrenez hurren.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2010eko ekitaldiak 4,1 milioi euroren saldo positiboa erakusten du, 2008 eta 2009ko ekitaldietan magnitude honek eman zituen saldo negatiboan aldean; horren arrazoia, batik bat, 2010eko ekitaldian gauzatutako inbertsioek behera egin izana da.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek 2010eko ekitaldian 3,9 milioi euroren saldoa du (2009ko ekitaldiko datua baino 2,1 handiagoa). Nolanahi den ere, finantziazio-desbideratze positiboak murrizten baditugu, 2010eko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 1,5 milioi euro inguru da, aurreko ekitaldiko datua baino txikiagoa, maileguak alde aurretik amortizatuz zorpetze maila murrizteko egindako ahaleginaren ondorioz.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.



2010eko ekitaldian zehar, Azkoitiko Udalak gastu arruntari eta inbertsioei eusteko politika bideratu du eta horrek 2010eko abenduaren 31n Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina izateko bide eman dio eta gainera, milioi 1 euroren aldez aurreko amortizazioaren ondoren zorpetzea % 14 murriztea lortu du. Edonola ere, eta neurriak neurri, 2010eko abenduaren 31n zor biziak ekitaldi horretan kitatutako diru-sarrerara arrunten % 92,6 egiten du, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak, ezarritako % 75eko muga baino handiagoa eta horrek eragotzi egiten dio Udalarari 2011ko ekitaldian zehar kreditu eragiketa berriak hitzartzea.

2011ko ekitaldirako, Udalak gastuari eusteko politika orokorrari jarraitu dio, 2,02 milioi euroren aurrezki gordina eta 417.500 euroren aurrezki garbi positiboa aurreikusiaz; horrek, kapitalezko transferentziekin batera, ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko bide emango dio. Aurreikuspenak egiteko aurreko ekitaldiaren likidazioarekiko UFFF % 4,35 haziko dela hartu da oinarri. Nolanahi ere, hasierako itxaropenak ez dira bete eta 2012ko otsailaren 14ko Finantzen Euskal Kontseiluaren arabera UFFFren behin-behineko likidazioa negatiboa da 800.079 euroan; kopuru hau osorik itzuli beharko da 2012ko ekitaldian.

Azkoitia Lantzen, SA Sozietate Publikoari dagokionez azpimarratzekoa da fiskalizazio-gai izan den ekitaldia baino lehenago konpromiso kopuru handia hartua zuela, nahiz txosten hau idatzi dugun datan, Sozietateak konpromiso horiek geroratzea negoziatu duen hainbat hirugarrenekin.

Gogoan izanik 2011ko ekitaldi itxieran balantzearen arabera sozietatea 1,9 milioi euroren maniobra funts negatiboa izatera aldatu dela, Azkoitia Lantzen, SAK bere jardueraren aribidean aktiboak gauzatu eta pasiboei aurre egiteko gaitasuna, erantsitako urteko kontuetan jasotako kopuru eta sailkapenaren arabera, kontularitzan jasoak dauden kopuruetan izakinen gauzatzeko mailari eta finantza oreka berrezartzeko eskura litezkeen balizko saneamendu neurriei meneratzen zaie.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2010-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	2.398	84	2.482	2.480	2.395	85	100
2. Zeharkako zergak	A.3	270	192	462	601	462	139	130
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.553	81	1.634	1.725	1.584	141	106
4. Transferentzia arruntak	A.4	6.960	231	7.191	7.084	6.714	370	99
5. Ondare sarrerak		177	-	177	66	65	1	37
6. Inbertsio errealen besterentzea	A.5	2.000	-	2.000	517	215	302	26
7. Kapital transferentziak	A.4	529	2.726	3.255	3.459	1.665	1.794	106
8. Finantza aktiboak		13	1.740	1.753	71	6	65	(*)245
SARRERAK GUZTIRA		13.900	5.054	18.954	16.003	13.106	2.897	(*)93

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAIN.	GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1. Langileria gastuak	A.6	3.220	57	3.277	3.278	3.043	235	100
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.	A.7	4.630	527	5.157	5.084	4.169	915	99
3. Finantza gastuak	A.11	342	(100)	242	236	236	-	98
4. Transferentzia arruntak	A.8	1.951	50	2.001	1.913	1.743	170	96
6. Inbertsio errealak	A.9	2.541	3.494	6.035	1.234	873	361	20
7. Kapital transferentziak	A.8	20	10	30	26	18	8	87
8. Finantza aktiboak	A.9	13	16	29	71	66	5	245
9. Finantza pasiboak	A.11	1.183	1.000	2.183	2.183	2.183	-	100
GASTUAK GUZTIRA		13.900	5.054	18.954	14.025	12.331	1.694	74
SARRERAK - GASTUAK					1.978			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./ BALIOG.	AZKEN ZORRA	
		ZORRA			
Zordunak	A.12	11.545	25	11.236	284
Hartzekodunak		10.531	-	10.528	3
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(25)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	16.003
Aitortutako obligazioak.....	(14.025)
AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA	1.978
AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA	(25)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	1.953
Finantzaketa desbideratzeak	(2.380)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	1.614
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	1.187

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 10.1.1ean	1.840
Aurrekontuaren emaitza	1.953
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunen bariazioa.....	7
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa.....	67
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N	3.867
Diruzaintza	2.710
Aurrekontuko zordunak	3.181
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	28
Aurrekontuzko hartzekodunak	(1.697)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(234)
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.12).....	(121)
DIRUZAINZA GELDIKINA 2010.12.31-N	3.867
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	(2.389)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.478
10.12.31-N ZORPETZEA (A.11)	11.072

KONPROMISO KREDITUAK	Euroak milakotan
2011ko ekitaldia	1347
2012ko ekitaldia	33
2013ko ekitaldia	33
2014ko ekitaldia	33
GUZTIRA	1.446



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009 ETA 2010eko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	31.12.10	31.12.09	PASIBOA	31.12.10	31.12.09
IBILGETUA	40.726	40.175	FUNTS PROPIOAK	32.343	27.581
Erab. Orok. eman. ondarea	624	444	Ondarea.....	47.905	47.905
Ibilgetu ezmateriala.....	317	385	Erabilera orokorrerako ondarea	(28.740)	(25.282)
Ibilgetu materiala	32.693	32.923	Ekitaldi itxien ondorioak	4.958	7.462
Lurraren Udal Ondarea.....	3.081	2.412	Galerak eta Irabaziak.....	8.220	(2.504)
Ibilgetu finantzarioa	4.011	4.011			
			HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	11.362	13.575
ZORDUNAK	3.088	11.381	Zorrek e/luz.....	11.256	13.575
Aurrekontuzkoak.....	3.181	11.545	Bermeak eta gordailuak e/luz	106	-
Askotariko zordunak.....	22	18			
Entitate publiko zordunak.....	6	6	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	3.249	12.153
-Kaudimengabez. zuzkid.....	(121)	(188)	Aurrekontuzko hartzekodunak	1.697	10.532
			Sarrerren itzulketeng. hartzekod.....	-	7
FINANTZA KONTUAK	3.140	1.753	BEZarengatiko hartzek.	1	9
Emandako maileguak.....	429	429	Erakunde Publiko hartzekodunak	134	271
Langileriarri maileguak	1	1	Bestel. hartzekodun ez aurrekontuk. .	47	-
Diruzaintza	2.710	1.323	Zorrek epe lab.	1.318	1.289
			Bermeak eta gordailuak e/lab.	52	45
AKTIBOA	46.954	53.309	PASIBOA	46.954	53.309

2009 ETA 2010-EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	10 URTEA	09 URTEA	SARRERAK	10 URTEA	09 URTEA
Langileria gastuak	3.319	3.409	Negozio zifr. zenbateko garbia	1.209	1.362
Kanpoko zerbitzuak	5.016	5.300	Zerga zuzenak	2.480	2.451
Emand. transf. eta dirulag.....	1.939	8.318	Zeharkako zergak	601	255
Amortizaziorako zuzkidura.....	1.103	1.153	Jasotako transf. eta dirul.....	10.699	8.643
Kaudimengab. zuzkid. aldak	(67)	(14)	Kudeak. beste sarrera batzuk...	1.053	3.880
USTIAKETA MOZKINAK	4.732	-	USTIAKETA GALERAK	-	1.575
Finantza gastuak.....	236	122	Sarrera finantzarioak.....	15	17
			EMAITZA FINANTZARIO NEG.	221	105
Urtealdi itxien gtu.-galerak.....	25	338	Ekitaldi itxien sarr. eta mozk. ...	-	118
			EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK	25	220
Ibilgetutik eratorritako galerak	1.923	604	Ibilgetua besterentzeag. mozkina	5.657	-
APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	3.734	-	APARTEKO EMAITZA NEGAT.	-	604
EKITALDIKO MOZKINAK	8.220	-	EKITALDIKO GALERA	-	2.504



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2010-EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Euroak milakotan	
AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	ERANSKINA	ZUBIAURRE	EGOITZA
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	42	1.073
4. Transferentzia arruntak	A.4	813	1.338
5. Ondare sarrerak		30	-
8. Finantza aktiboak		-	3
GUZTIRA		885	2.414

2010-EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Euroak milakotan	
OBLIGAZIO ONARTUAK	ERANSKINA	ZUBIAURRE	EGOITZA
1. Langileria gastuak	A.6	55	-
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak	A.7	483	2.300
4. Transferentzia arruntak		254	-
6. Inbertsio errealak		-	25
7. Kapital transferentziak		-	41
8. Finantza aktiboak		-	3
GUZTIRA		792	2.369
SARRERAK - GASTUAK		93	45

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA		Euroak milakotan	
		ZUBIAURRE	EGOITZA
ZORDUNAK			
Hasierako zorra		40	225
Kobrantzak		(40)	(204)
Amaierako zorra		-	21
HARTZEKODUNAK			
Hasierako zorra		109	373
Ordainketak		(109)	(373)
Amaierako zorra		-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan	
		ZUBIAURRE	EGOITZA
Kitatutako eskubideak		885	2.414
Aitortutako obligazioak		(792)	(2.369)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA		93	45
AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA		-	-
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA		93	45
Finantzaketa desbideratzeak		-	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak		-	64
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA		93	109



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	ZUBIAURRE	EGOITZA
Diruzaintza	114	331
Aurrekontuko zordunak	13	235
Aurrekontuz kanpoko zordunak	1	(1)
Aurrekontuzko hartzekodunak	(76)	(272)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(30)	-
(Zalantzako kobragarritasuneko saldoak)	-	(21)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 10.12.31n22		272
Eraginpeko finantzaketa duten gastuetarako DG	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	22	272
ZORPETZEA 10.12.31n	-	-

EGOERAREN BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	ZUBIAURRE	EGOITZA
IBILGETUA	-	79
Ibilgetu materiala.....	-	79
ZORDUNAK	14	214
Aurrekontuko zordunak	13	235
Askotariko zordunak	1	-
-Kaudimengabez. zuzkid.	-	(21)
FINANTZA-KONTUAK	114	330
Emandako maileguak	-	(1)
Diruzaintza	114	331
AKTIBOA	128	623
FUNTS PROPIOAK	21	351
Ondarea	40	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(112)	298
Galerak eta Irabaziak	93	53
HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	107	272
Aurrekontuzko hartzekodunak	76	272
Erakunde Publiko hartzekodunak.....	31	-
PASIBOA	128	623



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2010-EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK	Euroak milakotan	
	ZUBIAURRE	EGOITZA
ZOR		
Langileria gastuak.....	55	-
Kanpoko zerbitzuak.....	483	2.300
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak ..	254	41
Amortizaziorako zuzkidura	-	11
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	-	5
GASTUAK	792	2.357
HARTZEKOAK		
Negozio zifraren zenbateko garbia	6	1.072
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	813	1.338
Kudeak. beste sarrera batzuk.....	36	-
Sarrera finantzarioak	30	-
SARRERAK	885	2.410
Emaizta: (Galera)/Mozkina	93	53



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 AZKOITIA LANTZEN, SA UDAL SOZINETATE PUBLIKOA

EGOERAREN BALANTZEA 2009 ETA 2010eko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	ERANSKINA	31.12.10	31.12.09	PASIBOA	ERANSKINA	31.12.10	31.12.09
AKTIBO EZ ARRUNTA		10.488	10.707	ONDARE GARBIA		9.146	9.096
lbilgetu materiala.....	A.16	6	8	Kapitala		3.011	3.011
lbilgetuko inbertsioak.....	A.16	10.482	10.699	Erretserbak.....		920	920
				Aurreko ekitaldietako ondorioak ...		(1.147)	(1.128)
				Ekitaldiaren emaitza		178	(19)
AKTIBO ARRUNTA		23.677	26.484	Diru-laguntzak eta dohaintzak	A.16	6.184	6.312
izakinak	A.16	21.663	22.030				
Hornitzaileei aurrerakinak		755	807				
Merkatal hartzekodunak		781	3.636	PASIBO EZ ARRUNTA		4.289	4.329
e/lab. aldizkakotzeak.....		1	3	Kred. erakun. epe luz. zorrak	A.9	86	86
Efektiboa		477	8	Gerorat. zerga kontzep. pasiboak...	A.16	1.953	1.993
				Merkataritzako hartzekodunak.....	A.16	2.250	2.250
				PASIBO ARRUNTA		20.730	23.766
				Zorrak epe lab.....	A.16	601	603
				Merkataritzako hartzekodunak.....	A.16	20.129	23.163
AKTIBOA		34.165	37.191	PASIBOA		34.165	37.191

2009 ETA 2010-EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	10 URTEA	09 URTEA	SARRERAK	10 URTEA	09 URTEA
Izakinen bariazioa	506	6.969	Negozio zifr. zenbateko garbia	892	1.520
Hornidurak	453	4.370	Enpresak egindako lanak	-	10.817
Langileria gastuak	55	98	Bestelako ustiapen sarrerak.....	447	236
Bestelako ustiapen gastuak ..	80	930	Diru-laguntzak egozteak.....	168	92
lbilgetuaren amortizazioa.....	218	123			
USTIAPENAREN MOZKINA	195	175			
			FINANTZA EMAITZA NEGATIB.	17	194
EKITALDIKO MOZKINA	178	-	EKITALDIAREN GALERA	-	19





EGUNGO ALKATEAK AZKOITIKO UDALAREN ORDEZKARITZAN EGITEN DITUEN ALEGAZIOAK

Pello Bastarrika Elorza, Azkoitiko Udaleko alkate-lehendakariak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2010ean egindako Azkoitiko Udalaren Fiskalizazio Emaizten aurrean, horretarako ezarritako epean eta moduan aurkeztu du alegazio-idatzi hau, honako hauen arabera:

Aurrekariak

- 1.- 2012ko uztailaren 23an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren behin-behineko txostena jaso zen –Azkoitiko Udalaren 2010eko fiskalizazioari buruzkoa–, Pello Bastarrika Elorza alkate-lehendakariari zuzendua, egoki bazeritzon, alegazioak aurkez zitzan irailaren 18a baino lehen.
- 2.- 2012ko irailaren 11n igorri zitzaizen txostena egungo eta lehengo arduradunei, egoki bazeritzoten alegazioak egin zitzaizen, horiek ere irailaren 18a baino lehen.
- 3.- 2012ko irailaren 13an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ebazpena jaso zen alegazioak aurkezteko epea urriaren 5a arte luzatuz.

Oinarriak

II. IRITZIA

II. 1 UDALA ETA TOKI-ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.1 LEGEZKOTASUNAREN INGURUKO IRITZIA

LANGILEAK

Zubiaurre Elkargune Institutuko koordinatzaile postua betetzeko prozedura jendaurreko informazioan jarri zen, honako honen bidez:

Udal Osoko Bilkurak 2009ko martxoaren 31n onartu zuen Zubiaurre-Elkargune Institutuaren Lanpostuen Zerrenda, eta 2009ko maiatzaren 29ko GAOn argitaratu zen behin betiko testua. Zerrenda horretan koordinatzaile-postu bat sortu zen eta mugikortasun funtzionalaren bidez betetzea aurreikusten da osoko bilkurak 2009ko maiatzaren 11n onartutako –2009ko urriaren 16ko GAOn argitaratua– giza baliabideak arrazionalizatzeko programa-Enplegu Planean.

KONTRATAZIOA

Legezketasunaren betearazpenari buruzko iritzian (II.1.1 atala), kontratazioaren azpiatalean, 2010 urteko ekitaldian exekutaturako gastuak aztertuta, zenbait kontratazio-jardunbidetan, kontratazio arloko araudia ez dela bete adierazten da; ondorengoan:

- Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua, 2004ko abenduaren 15ean esleitu zen lehiaketa bidez lau urterako. Kontratua 2008ko abenduan amaituta, 2010 urte arte enpresa berak zerbitzuak eskaintzen jardun zuela adierazten da txostenean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Justifikazioa: Aipatu kontratuaren indarraldia amaituta (2008ko abenduan), Azkoitiko Udaleko sail desberdinetako zerbitzu teknikoek, udal eraikinen garbiketako zerbitzua kontratatzeko jarraituriko kontratazio-jardunbidea jasotzen duen 2004ko espedientea (133/2004 Secre) eta urte horietan zehar zerbitzuaren inguruan egindako kontratuaren aldaketak (bai zerbitzua emateko orduetan, lekuetan, antolaketan eta baita prezioan ere) aztertuta, ezinbestekotzat jo zuten, lizitazio berria atera eta kontratazio-jardunbideari hasiera eman aurretik, azterketa sakon bat egitea, bai zerbitzuaren berrantolaketari zegokionean eta baita zerbitzuaren kostuei zegokionean ere. Egia da, azterketa hori egiteko, Udaleko zerbitzu teknikoek denbora behar izan zutela baina lan horrek, zerbitzuaren kostuaren murrizketa garrantzitsua ekarri zuen.

Beraz, epealdi horretan teknikariek egindako azterketak, 2010eko kontratazio-jardunbidean isla izan zuen, horrek Udalari onura teknikoak zein ekonomikoak ekarri zizkiolarik.

Kontratazio-jardunbidea gauzaturik, udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua 2010eko azaroaren 29an izenpetu zen.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2010eko abenduaren 31n sorrarazi gabeko eta erregistratutako eskubideak.

A.4.- Musika-eskola finantzatzeko GOVA diru-laguntza bikoiztua:

Udalak 2010eko abenduaren 31n 64.122,35 euro kobratzeke zeuden sarrera gisa aitortuta ditu, Eusko Jaurlaritzak Azkoitiko Udalari musika-eskola pribatu baten gastuak eta inbertsioak finantzatzeko emandako diru-laguntza baten kontura.

Adierazi behar da, akatsez, bi aldiz aitortu zela sarrera hori eta, akatsa 2011n antzeman zenean, baja eman zitzaiola eta, ondorioz, 2011ko ekitaldiko altxortegiko soberakina gutxitu zela.

Ondare doiketak

A.3.- 2010eko 4. hiruhilekoari dagokion zaborren errolda

Udalak ez ditu 2010eko ekitaldian kontabilizatu ekitaldi horretako 4. hiruhilekoari dagozkion zabor-bilketako erroldaren sarrerak 242.952 euro, ekitaldiko laugarren hiruhilekoko zenbatekoa hurrengo urteko otsailean aitortzen baita. Egoera bera izan da hainbat urtetan eta, ondorioz, Udalak urtean lau hiruhileko kontabilizatzeko irizpidea erabili du, nahiz eta lau hiruhileko horiek dagokion ekitaldiko lehen hirurak eta aurreko ekitaldiko azkena izaten diren.

A.5. Lurzoruaren udal-ondarea: 32 Urrategi Bidea sektorea

Udalak 2010eko ekitaldian alta eman die “Lurzoruaren Udal Ondarea” kontuan 520.435 euroko ondasunei, ibilgetuaren gaineko etekina kontabilizatuta. Zenbateko hori A-Hiru/Bi, B



Bat, B Bi eta F Bat lur-sailei dagokie eta Udaleko Bulego Teknikoak metro koadroko emandako baloraziotik atera da.

“Urrategi bidea” 32 sektorea burutzeko hirigintza-hitzarmenaren hirugarren hizbaketan, 5 a) atalean, esaten da Azkoitiko Udalak bere kontura burutuko dituela “Urrategi Bidea” 32 sektorea urbanizatzearen karga guztiak, Injelan SL enpresak idatzitako urbanizazio-proiektuaren arabera, jabeei esleitzen zaizkien A-3/1 lur-sailei dagokien proportzioa barne. Ondorioz, jabeek lur-sail horiek kargarik gabe jasoko dituzte. Proiektu hori kontratu bidez burutzeko aurrekontua 1.455.167,37 euro da (BEZ gabe).

Hitzarmen horretan ez da zehazten obra horiek burutzeko eperik, eta, ondorioz, behin betiko onartu ziren Azkoitiko Udalaren 2012ko Aurrekontuen konpromiso-kredituen eranskinean urbanizazio-karga horiek ageri dira 1.717.097,49 euro, baina zein urtetan burutuko diren zehaztu gabe.

A.9 2010eko abenduaren 31n eskrituratutako erosketaren aurrerakinak

2005ean, Udalak 203.713,52 euro aurreratu zituen kiroldedia zabaltzeko lurak erosteko. Ondoren, 2008ko azaroaren 20an, salerosketa-kontratua sinatu zuen XX, lur horiek erosteko. Ekitaldi horretan jaso beharko zen eragiketa Erabilera Orokorreko Ondarearen kontuan. Akats hori 2011ko urteko kontuan zuzendu da.

II.2 AZKOITIA LANTZEN S.A. UDAL SOZIJETATE PUBLIKOA HKEE-REN SARRERA

Alegazio-izapidearen egitekoa da auditoria-gai izan den erakundeari fiskalizazioaren ondorioei dagokienez egoki iriztitako hura justifikatzeko aukera ematea; ez da, baina, errugabetze alegazioak aurkezteko bideratutako izapidea, eta are gutxiago, hirugarrenak erruztatzeko.

Fiskalizazio-gai diren erakundeei jakinarazten zaien modura, ez dira aurkeztutzat joko alegazioetarako idatzian barne hartzen diren eta txostenarekin edo fiskalizazioarekin zerikusirik ez duten gaiei buruzko adierazpenak.

Honenbestez, behin Azkoitiko Udalak igorritako alegazioen idatzia aztertu ondoren, jaso gabe utzi ditugu Azkoitia Lantzen, SA sozietateari buruzko hainbat alegazio; hona hemen arrazoiak:

- horien edukia ez dator bat ez fiskalizazioaren xedearekin, ezta HKEE honek fiskalizatutako aldiarekin ere.
- udaleko lehenagoko arduradunen jardueri buruzko adierazpenak jasotzen dira, baita norbanakoenak ere, agiri bidezko euskarririk gabe.
- behin-behinekoak diren bi isilpeko txosten transkribatu dira, aldaketetara meneratuak, horietako batean hitzez hitz dioten moduan: “Horregatik guztiagatik, eta azterketa-gai diren egitateek udal sozietatean hainbat kargu bete dituzten pertsonak neurri handi-txikian eragiten dituzten heinean eta eraginpeko pertsonekin dagokion alderaketa egin



ez denez gero, honako agiri hau hasierako zirriborroa da, berrikusketa, alderaketa eta kasua bada, zuzenketara meneratua”; eta bestean esaten da “egokia dirudi kudeaketan zerikusirik izan duten pertsonak alde aurretik ezagut ditzatela honako txosten honek mahairatzen dituen zalantzak, haien eskubideak behar bezala babestearren”;

- eta entzuterik eman ez zaien pertsonen kontrako salaketa eta iritzia jaulkitzen dira.

Azkenik esan behar da kongruentziarik eza sortzen dela 2011ko ekitaldiko kontuei buruzko iritzia eta sozietatearen kontuei –egungo udalbatzak onartutakoak- jarritako alegazioen artean, izan ere, ez dituzte aipatutako alegazioetan deskribatutako egintzetako asko eta halaz ere, Epaitegi honek txostenean proposatutako doiketa guztiak barne hartzen dituzte. Harrigarria da kongruentzia eza hau alegazioetan adierazitakoaren tonua eta larritasuna aintzat hartuta eta nabarmen urritzen dute haien sinesgarritasuna.

Honegatik guztiagatik, sozietatearen txostenari jarritako alegazioak irakurri aurretik jakinarazi dugu, dagokion testuinguruan kokatzearen.

II.2.1. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

SARRERA

Aipatu enpresa publikoak legezkotasuna betetzeari buruz Epaitegiak adierazitako iritzia, batetik, 10.1. sektorean eta Txalon Erreka 9.1 eremuan lurzatiak besterentzeko eragiketei buruzkoa da, eta bestetik, Egin Berri 27. sektorean burututakoei buruzkoa. Horien gainean ondorioztatzen du, eragiketa horietan Lurzoru eta Hirigintzaren Legeko 116. artikuluko ez betetzeak izan ezik, aipatu sozietateak ekitaldi horretan bere jardura ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege araudia bete duela.

Egia esan, 2011ko uztailan, gaur egungo kontseilariak udal sozietatearen kargu egin ziren datan, enpresa horren egoera oso larria zen, izan ere Azkoitia Lantzen SA-k ez zuen aurreko kudeatzaileek hartutako konpromiso ugariari aurre egiteko baliabide ekonomikorik, hainbestearino non gaur egungo Azkoitiko alkateak, Administrazio Kontseiluaren presidentetza bereganatu baino lehen, 2011ko uztailaren 4an, bere aurrekoari dokumentu batzuk eta aipatu sozietatearen hirigintza eta finantza konpromisoen egoerari buruzko txostenak eskatu zizkion, egon litezkeen erantzukizunak mugatzeko xedearekin. Eskaera horri erantzunez, orduko Administrazio Kontseiluak, 2011ko uztailaren 8ko bileran, orduko legelari aholkulariari, Kontseiluko idazkariari (aldi hartan Udaleko idazkaria zena) eta empresari 2007ko¹ ekitalditik urteko kontu ikuskaritzen txostena egin zuen enpresa eskatu zien legezkotasun, kudeaketa eta finantza txostenak egiteko.

Legezketasun eta kudeaketa txostenen ondorioak latzak dira eta horiei buruz hitz egingo dugu aurreraxeago.

Azkoitia Lantzen, S.A. Udal Sozietate Publikoak, zeinen partaidetzaren % 100 udalarena den, xede gisa du lurzoria sustatzea, antolatzea, hiritartzea, saldu eta erostea eta

¹ 2011ko ekitaldiari dagokion auditoria beste enpresa batek egin du.



etxebizitzak, industria eraikinak, zerbitzu eta zuzkidura komunitarioak kudeatzea, erabilgarritasun publikoa nahiz pribatua dutenak.

Udal Sozietatearen arduradunek 2006 eta 2010. urteen artean egindako salerosketa eragiketak, balorazioak ez egoteak, betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak hartzeak inolako kontrolik gabe (legezkotasunik gabe, ezta gastuaren fiskalizazioaren ikuspuntutik ere), hornidurarik gabe, etab., aipatu sozietatea egoera larri batera eraman dute, eta gorabehera hori ezin du alde batera utzi Epaitegi honek.

Ondorioz, Behin-behineko Txostenean jasotako ondorioek, zor zaien den errespetuarekin, ez dute inolako zerikusirik Azkoitia Lantzen S.A. udal enpresarekin, ezta sozietatearen legelari aholkulariak eta idazkariak, aldi berean Udaleko idazkaria denak, egindako legezkotasun eta kudeaketa txostenetan jasotako ondorioekin ere, dokumentu honi erantsi zaizkionak.

ALEGAZIOAK

1. Sozietate publikoak lurzorua ondoko besterentzeak egin ditu, etorkizuneko hirigintza probetxamenduak ahalbidetuko dituzten hirigintza aldaketan izapidetzak baldintzatutakoak, zuzenean eta prezioa justifikatzen duen balorazio txostenik egon gabe, eta horrek LHL-ko 116. artikulua urratzen du.

a) 6.61 milioi euroko zenbatekoan 10. Sektoreko (Txalon Erreka) 1. U-an lurzati batzuk besterentzea.

Aipatu salerosketa kontratuak Azkoitia Lantzen S.A.-k eman ditu, eta hau ez da Birpartzelazio Proiektuan jarri behar diren finken titularra –ez behintzat eskritura publikoaren arabera-. Horretatik ondorioztatuta sortuko dira bi sozietatei besterendutako lurzatiak, eta merkataritza enpresa horiek Azkoitia Lantzen-i hitzartutako prezioaren gehiengo ordaintzen diote Azkoitia Lantzen-ek dokumentu publikoaren bidez aipatu lurzorua eskuratu baino lehen. Hori dela eta:

- Sozietateari jasanarazten zaion arrisku egoera nabarmena da, kontuan izanik eskuratutako konpromisoek dituzten ondorio ekonomikoak, eta egoera horretan Azkoitia Lantzen-ek ezin du horiek betetzen direla ziurtatu.
- Birpartzelazio Proiektuan jarri behar diren finken eskurapen² prozesuak baldintzatzen ditu hortik eratortzen diren lurzatiak beren eskuratzailerik entregatu ahal izateko; horrenbestez, kasu askotan udal sozietateak bere burua kontraprestazioak onartzera behartuta ikusten du, askotan ebaluatu gabe daudenak (finka itxierak, lurzatiak hiritartzeko obrak...), lurzoruen eskurapen balioa nabarmen garestitzen dutenak, eta horietako batzuk gaur egun bete gabe daude, eta betetzeko aukerarik gabe (Tallenta eta XX finken itxierak, esate baterako).

² Birpartzelazio proiektuan -2008ko abenduaren 26an behin-betiko onetsitakoa- ekarritako lursailak Azkoitia Lantzen, S.Aren izenean zeuden eskrituran jasoak.



Ez dago inolako txostenik lurzati horiei dagokien probetxamenduaren % 10 transakzionatzeko Azkoitiko Udalaren baimena jaso denik justifikatzen duenik % 10 lagatzeko betebeharretik salbuetsita saltzen dira, administrazio honi dagokiona, eta gogoeta horrek izaera irmoa du kontratuak prezio jakin bat ezartzen du-, plangintza orokorra hasierako onarpenaren fasean dagoenean eta ez dagoenean inolako plangintza xehaturik ez baloraziorik ez hainbanaketa tresnarik. Zehazki, 1. U-ren Birpartzelazio Proiektua behin betiko izaerarekin onartu zen 2008ko abenduaren 31n.³

Dena den, egia da bai Txalon Erreka aldi baterako enpresa elkartearen desegitea eta likidazioa bai aipatu salerosketak Azkoitiko Udalaren ondarearen eta udal sozietateari dagozkion ondasunen eskualdaketak direla, soil-soilik sozietateak eginak hirugarren batzuekin, publizitate eta lehiarik egin gabe, eta inolako prozedurarik jarraitu gabe, uanean aplikagarria zen araudia urratuz, zehazki, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratua (ekainaren 16ko 2/2000 Legea), Herri Administrazioen ondarearen legedia eta sektore publikoaren gainerakoa (Herri Administrazioaren Ondarearen 33/2003 Legeko 166. artikulua eta hurrengoak), eta une hartan indarrean zegoen lurzoruaren ondare publikoen alorrean aplikagarria zen legedia (estatuko Lurzoruaren Araubide eta Hiri Antolamenduaren 1/1992 Legeko 276. artikulua eta hurrengoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 116. artikulua), besterentzeko prozedura gisa lehiaketa ezartzen duena. Era berean, ez dago jasota Azkoitiko Udalaren inolako agindu edo ekintza fakultatiborik Azkoitia Lantzen-en alde, udal sozietateak udal ondarearen bat transakzionatu edo besterendu dezan.

Halaber, sinatutako kontratuak formalizatu zirenetik zenbatzen hasita urtebeteko epean eskritura publikoan ez formalizatzeak bi prozedura judizial eragin zituen, aipatu merkataritza enpresek udal sozietatearen aurka sustatutakoak, egindako kontratuak amaitzeko erreklamatu, eta ondorioz ordaindutako prezioa gehi zegozkion interesak itzultzeko eskatuz, gehi kalteordain bat eragindako kalteengatik. Prozedura judizial horiek adostasun batera iritsita konpondu ziren 2011. urtean, eta horretarako aipatu prozeduretan legelari eta prokuradore bat kontratatu behar izan da.

Ondorioz, -udal sozietateari eta Udalari- eragindako ondare kaltea aipatu ekintzei dagokienez, gutxienez, ondokoa da:

³ 2006ko azaroaren 2ko Udalaren Osokoak aprobetxamendu horien alde aurreko likidazioa onartu zuen, 2008an Azkoitia Lantzen, SAK ordaindu zituenak. Kitatutako aprobetxamenduari dagokion zenbatekoa bat dator behin-betiko onetsitako birpartzelazio proiektukoarekin.

Azkoitiko Udala:	
29. HEaren hirigintza eraikigarritasunaren lagapenaren %10	546.976,96 euro
340,05 m2-ko udal lurzatiaren eskurapena.....	179.401,29 euro
GUZTIRA	726.378,25 euro
Azkoitia Lantzen:	
Legelari eta prokuradorearen zerbitzu sariak:.....	200.796,20 euro

Horri gehitu egin beharko litzaizkioke udal sozietateak gerora beren jatorrizko jabeen eskualdatutako lurzoruen eskurapenean ordaindutako gainkostuak, alegazio honetan jada aipatu direnak.⁴

2.- Txalon Erreka 9.1. eremutik ateratako lurzattia besterentzeari dagokionez, jasoarazi behar da, 2006ko otsailaren 21ean sinatutako kontratuari buruz, eskritura publikoan 2008ko azaroaren 7an formalizatu zena, sozietatearen egoitzan eta Azkoitiko Udalean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren:

Kasu honetan aurreko alegazioan adierazitakoa errepikatu behar da, hau da, sozietatea ziurgabetasun egoera batean jartzen da hirugarrenekin aurretiaz titulu publikoaren arabera eskuratu ez diren finakak besterentzea adosterakoan eta Birpartzelazio Proiektuan jarri behar diren finken eskurapen prozesuak baldintzatzean; aipatu behar da, halaber, sozietateak lurzoruen eskurapenean bere gain hartutako gainkostua.⁵

Sinatutako dokumentuak, existitzen ez den hainbanaketa proiektu batetik hipotetikoki eratortzen diren lurzatiak behar baino lehenago banatzeaz gain, % 10eko lagapenaren betebeharretik salbuetsita eskualdatzen ditu. Aldi berean, eroslearen sektore osoaren hiritartze zergen % 50 ordaintzeko betebeharra konprometitzen du, horren zenbatekoa zehaztu gabe eta oraindik hori justifikatzen duen Birpartzelazio Proiektua existitzen ez denean. Dena den, ordainketa horretatik sektorea egituratuko duen bidearen eraikuntza obraren ordainketa baztertzen da, 8. Hiri Eremua etorkizuneko Tallentako errotondarekin komunikatzen duena; obra horien kostua hamar milioi eurotik gorakoa izango litzateke eta Txalonerreka ekialdea eta mendebaldea esparruetako hiritartze karga nagusia da.⁶

Are gehiago, dokumentuak 5. Eranskin gisa sartzen duen planoan ondokoa adierazten du: “Txalon Errekaren esparru hark aurkeztu behar duen mugapen zehatza, aurreikusitako

⁴ Udalak ez digu kostu hauek euskarrituko dituen inongo agiririk eskuratu. Udalari egotzitako kostuak ez daude UE 10.1etik besterendutako lursailekin loturik.

⁵ Birpartzelazio proiektuan -2008ko uztailaren 29an behin-betiko onetsitakoa- ekarritako lursailak Azkoitia Lantzen, SAren izenean zeuden eskrituran jasoak. 2006an izenpetutako kontratuaren bosgarren klausulak dio “bi aldeak jakitun dira kontratu hau haien borondatez kanpoko egitateari meneratzen zaiola... Honenbestez, kontratu hau berariaz meneratzen zaio planeamendu orokorraren azterketa espedienteak bide egiteari...”

⁶ 2006ko azaroaren 2ko Udalaren Osokoak aprobetxamendu horien alde aurreko likidazioa onartu zuen, Azkoitia Lantzen, SAK 2006an ordaindu zituenak. Kitatutako aprobetxamenduari dagokion zenbatekoa bat dator behin-betiko onetsitako birpartzelazio proiektukoarekin. Balorazio txosten ezak ez du zein zama eragin diren egiaztatzen uzten.



azalera handitu ondoren, horren aurreikuspena bi aldeek ezagutzen dutelarik”. Hau da, Azkoitia Lantzen-ek sinatutako kontratu pribatuak ez die soilik eragiten kudeaketa eta hainbanaketa alderdiei, baizik eta aldatu eta baldintzatu egiten du data horretan Azkoitiko Udalak hasierako onarpena eman zion plangintza orokorraren berrikuspenaren dokumentua.⁷

Horrela, sinatutako kontratu pribatua, nahiz eta udal ondareari eragiten dioten zehaztapenak –bi alderdietan, jabari ondasun eta erabilera publikoarena, eta lurzorua udal ondarearena-, eta 9. H.E.-an eta 10. sektorean plangintza orokorraren eta garapenaren tresnen edukia baldintzatzeko eta zehazten duten itunak dituen, ez zen udal egoitzan izapidetu, eta horretatik ondoko ondorioak eratortzen dira:

- Udal sozietateak ez du inolako eskumenik plangintzaren hirigintza hitzarmenak emateko, izan ere, txosten horretan errepikatu den moduan, izaera pribatua duten entitateek ezin dituzte bere gain hartu plangintza ahalmenak, eta ezin dira ahalmen horien ahalordetze subjektu izan, udal administrazioarentzat eskuordezinak eta erabilezinak direlako. Horrela plangintza orokorra eratzeko prozesua galbideratu egiten da, izan ere, udal sozietateak sustapen pribatuarekin egiten dituen itunak dira plangintza eratzeko eta aldatzea baldintzatzeko dituztenak, ez alderantziz. Horrela, udal kontrol publikorik gabe sozietateak sinatutako kontratu baten arabera, aurretiko izaerarekin bereganatzen dira azkenean, gerora, plangintzan sartuko diren hirigintza betebeharrak. Ondorioz, udal sozietateak Udala ordezkatu egiten du eta kendu egiten dizkio berezkoak eta eskuordezinak zaizkion plangintza orokorra eratzeko ahalmenak, eta ukatu egiten ditu hirigintza funtzio publiko gisa hartzea eta hirigintza gure legedian indarrean dauden interes publikoen mende jartzeko printzipioa.
- Hirigintza izaerako itunek –ezin zaio hitzarmen deitu hitzarmen ez den gauza bati jarraitzen duten publizitate printzipioa ez da bete, eta ezagutza publikotik kendu dira plangintza eta kudeaketaren hirigintza hitzarmenaren izaera duten baina kontratu pribatu gisa eraikitzen eta formalizatzen diren tresnak. Horrek herritarren parte-hartzearen eta informazio publikoaren printzipioak ez betetzea dakar, hirigintza jardueran, eratze fase guztietan bete behar direnak, indarrean dagoen legediaren arabera.
- Azkoitia Lantzen-ek ez du izan udal baimenik edo inolako agindurik 9. H.E.-an eta 10. sektorean dauden udal titulartasuneko lurzatiekin eta esparru horiei dagokien probetxamenduaren % 10etik datorren lurzorua Udal Ondarea edukitzeko edo inolako transakziorik egiteko ahalmena ematen dionik.⁸

⁷ Kontratuak planeamendu aldaketari meneratzen zaizkio eta ez alderantziz.

⁸ Azkoitia Lantzen SAK ez du inongo hirigintzako hitzarmenik izenpetu. Kontratuan ondoko klausula jasotzen da: “bi aldeak jakitun dira kontratu hau haien borondatez kanpoko egitateari meneratzen zaiola... Honenbestez, kontratu hau berriaz meneratzen zaio planeamendu orokorraren azterketa espedienteak bide egiteari...”



3.- Enpresa batik 2010eko abenduaren 22an sinatutako kontratuari dagokionez, beharrezkoa da ondoko puntuak jasoaraztea:

HKEE-aren txostenean aipatutako 2010eko abenduaren 22an sinatutako kontratua aurretik, 2008ko urriaren 29an, aipatutako enpresarekin sinatutako kontratuaren, eta horren ondoz ondoko luzapenen berritze bat da. Xedea, bi kasuetan, Azkoitiko Hiri Antolamenduko Arauen 27. sektorean –Eginoberri- kokatutako lursailak eskualdatzeko eragiketak artikulatzea da.

27. sektorean –Eginoberri- 2006. urtean lohiz betetako altzairugintzako hautsen antzinako hondakindegia bat dago, ondokoek ustiatua: beste hondakindegia titularrak, eta enpresa batek, hondakindegira eraman baino lehen altzairugintzako hautsaren inertizazio instalazioaren titularrak. Jasoarazi behar da, 2012ko martxoan egindako azterketen arabera, hondakindegian bildutako substantziek oso osagarri kutsatzaileak dituztela, substantzia arriskutsuen hondakindegietan gordetzeko galdagarriak diren parametroak soberan gainditzen dituztenak –eta Eginoberrikoa ez da mota horretako hondakindegia- beruna eta molibdenoa bezalako osagarrietan.

Azkoitia Lantzen sozietateak, 2007. urtean, prozesu bati ekin zion 27. sektoreko lurzorua eskuratzeko, altzairugintzako hautsaren hondakindegia zegoen lurzattia barne, bi helbururekin: batetik, hondakindegia ixtea eta ondoren honek hartzen dituen lurzorua berreskuratzea, beti horren eragileen kargura, eta bestetik, berreskuratutako lurzorua jarduera ekonomikoetarako erabiltzea, industria ezarpen berrietarako edo Intsausti H.E.-an dauden enpresak bertan kokatzeko erabiliz.

Sektoreko lurzoruaren balorazioari buruzko zenbait zirriborro daude, ondokoak:

- 81,52 euro/m²
- 6.288.950,91 (2007ko irailak 14)
- 5.393.371,19 euro. (2007ko irailak 17)
- 8.423.371,48 euro (2007ko irailak 25)
- 6.288.950,91 euro (2007ko irailak 28)

Kalkulu guztiak hirigintza esparru berari buruzkoak dira, probetxamendu berarekin: sektorearen 136.597 m²-ko guztizko azaleraren gainean industria erabilera duen 55.000 m² eraikiko hirigintza probetxamendua aurreikusten da. Ez da txostenarekin batera aurkeztutako Hiri Antolamenduko Arauen fitxan jasotako solairuarten eraikigarritasuna aipatzen; sektorearen eraikigarritasuna guztira 97.500 m²e da.

Hala eta guztiz ere, sozietatearen egoitzan jasota dagoen dokumentaziotik eratortzen da ez dagoela udal sozietateak onartutako inolako baloraziorik.

HKEEaren txostenak aipatutako 4.230.000 euroko balorazioari dagokionez, Azkoitiko Hiri Antolamenduko Arauen Aldaketaren Dokumentuan jasota dagoena, antzeko kalkulua egiten



duen aurrekari bat dago udal sozietatearen dokumentazioan, ondoko aurreikuspenetan oinarritzen dena:

- Udalak bere gain hartuko lituzke alokairua aurrez amaitzearen kostua (1.100.000 euro) eta linea elektrikoa desbideratzearen gastua (1.160.000 euro).
- Udalak hirigintza lagapenaren % 10 gisa 315.284,38 euroko zenbatekoa jasoko luke.
- Ez da SPRILUR-ek aurreratutako 600.000 euroko zenbatekoaren itzulketa barne hartzen.
- Lurzoruak erostearen kostuak guztira gehienez ere 3.530.870,10 eurokoak direla baloratzen da.

Horrenbestez, balorazio horrek dakar, batetik, hirugarren bati, kasu honetan, Azkoitiko Udalari, soilik sektoreari eta beraz, bere jabeari, egozgarriak zaizkion kostuak jasanaraztea, eta SPRILUR sozietate publikoari aurrerakin bat itzultzearena alde batera uztea, eta dena den, sozietatearentzako ondare galera bat onartzea, hori izan delarik azkenean gertatu dena; eta ez da hori islatu 2010eko ekitaldiari dagozkion sozietatearen kontuetan.⁹

2008ko urriaren 28an, Azkoitia Lantzen-ek ondoko proposamena onartu zuen, bestek beste:

“4.- Egin Berri-ko lursailak saltzen zaizkio XX-ri, karga eta alokairurik gabe eta zigilatuta, salerosketa hori formalizatzeko beharrezkoa den dokumentu oro sinatzeko.”

Eginoberriko lursailak aipatutako empresari eskualdatzeko proposamenari dagokionez, 2008ko urriaren 28ko aktak ez du salmentari buruzko inolako baldintzarik jasotzen, ezta prezioa ere. Ez da adierazten, era berean, eragiketaren balantze ekonomiko defizitarioa –eta ondorioz, sozietatearentzat ondare galerak dituena-, eta ez da justifikatzen, halaber, salmenta zuzena burutu izana, lehia, publizitate eta berdintasun printzipioak alde batera utziz.

2008ko azaroaren 20an bileran, presidente jaunak jakinarazi zuen Eginoberriko lurzorua saltzeko egindako kontratua jada sinatu zela, eta aktak ez du prezioarekin (4.000.000 euro) lotutako kontua eta horren % 25 ordaindu dela besterik islatzen.

2008ko urriaren 29an sinatutako salerosketa kontratu pribatuari dagokionez, ondoko puntuak jasoarazi behar dira:

- Ez dagoela justifikaziorik lurzoruaren udal ondareari datxezkion ondasunen besterentzea arautzen duten publizitate, lehia eta berdintasun printzipioak ez aplikatzeko.¹⁰
- Beste behin, Azkoitia Lantzen-ek udal lagapenaren % 10arekin transakzionatu duela, izan ere, lurzorua kargarik eta % 10aren derrigorrezko lagapenik gabe eskualdatu ditu, Azkoitiko Udalaren aldetik inolako baimenik edo agindurik jaso gabe.¹¹

⁹ Epaitegi honek sozietatearen kontuen doiketa modura 2 milioi euroren ondare-galera barne hartu du.

¹⁰ Epaitegi honek iritzi dio zuzeneko salmenta justifikatzen dela Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 137.4 c) artikuluan jaso dagoen interes publikoarekin.

- Salerosketa dela-eta adostutako prezioak ez dituela sektoreari egozgarriak zaizkion kostuak estaltzen eta eragiketan defizit handi bat sortzen duela, 2.000.000 eurotik gorakoa, eta ez dago jasota sozietatearen administrazio organoari horren garrantziaren berri eman zaionik.
- Inolako azalpen edo justifikaziorik gabe, kontratuan Azkoitia Lantzen-en ardura adosten dela, hondakindegia titularrak berari dagozkion ingurumen betebeharrak betetzeari aurre egiten ez badio, eroslearen aurrean horiei buruz erantzuteko betebeharra hartuz bere gain. Horien artean zerrendatu behar dira lurzoruaren kalitate adierazpenerako eta altzairugintzako hautsaren hondakindegia ixteari eta itxi osteko mantentzeari buruzko Ingurumen Baimen Bateraturako beharrezkoa den dokumentazioaren aurkezpena; hondakindegia ustiapenetik edo hondakindegia titularrak garatutako edozein jardueratik eratorritako lege eta ingurumen betebeharrak, baita hondakindegia itxiera, tratamendu eta lizibiatuak desagerraraztetik eratorritakoak eta gainerako lege eta ingurumen betebeharrak ere, ingurumen agintaritza eskudunak hala ezartzen duen aldian zehar.¹²
- Azkoitia Lantzen-ek bere gain hartutako betebeharren artean, 26 eta 27. sektoreek osatzen duten etorkizuneko enpresa parkerako sarbideari dagokiona dagoela, baita sektorearen mugetatik kanpo kokatzen diren azpiegitura orokorren exekuzioa ere. Obra horiek ez dira ez kuantifikatzen ez baloratzen.
- Azkoitia Lantzen-ek modu subsidiarioan kontratuan aipatutako hirugarrenen betebeharrak hartzen ditu bere gain: XX, XX hondakindegia titularrak eta Geldotze-erakinaren titularrak Urola Erdiko Industrialdea eta Gipuzkoako Foru Aldundia, sektorean lursailen titular direnei dagokienez, eta Azkoitiko Udala.

Ez dago jasota Azkoitia Lantzen S.A.-ko kontratu honen edukiaren eta horrek zituen ondorio ekonomikoen berri zuenik.

Garrantzi berezia du Azkoitia Lantzen S.A.-k, hondakindegia titularrak ustiatutako altzairugintza hautsaren hondakindegia ixtetik eta itxi ondorengo mantentzetik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzeak. Ez dago jasota horiek kuantifikatu zirenik kontratua sinatu zen unean. Hala eta guztiz ere, urtebete geroago, 2009ko urrian, Ingenieritza enpresa batek, Eusko Jaurlaritzaren aurrean izapidetutako Ingurumen Baimen Bateratuaren espedientean, hondakindegia ixteko eta itxi ondorengo mantentzearen zereginen kostua 15.613.587,60 euroko zenbatekoan zifratu zuen, 30 urtetan zehar. Zifra hori aipatu espedientean jaso eta onartu zen sailburuorde andrearen ebazpenaren bidez, 2010eko ekainaren 10ean.

¹¹ 2006ko azaroaren 2ko Udalaren Osokoak aprobetxamendu horien aldez aurreko likidazioa onartu zuen, 2006an Azkoitia Lantzen, SAK ordaindu zituenak. Kitatutako aprobetxamenduari dagokion zenbatekoa bat dator behin-betiko onetsitako birpartzelazio proiektuarekin.

¹² Klausula hau aldatu egin zen 2010eko abenduaren 22an izenpetutako kontratu berritzearen ondorioz.



Hala eta guztiz ere, badago dokumentu bat “finantza azterlan eguneratua” deritzona, ingeniari-tza enpresa berak 2010eko uztailean egin zuena, eta bertan kostuen hipotesi bat ezartzen da, esparru horretan obra jakin batzuk egin aurrekoa, 5.141.971,63 eurokoa. Azterlan hori ingeniari-tza enpresa horrek eraturako Oñartxoko Hondakindegia-ren Lixibiatze Emarien Bilakaerari Eta Gogoeta Ekonomikoen Berrikuspenari Buruzko Txostena izeneko dokumentuan sartuta dago.¹³

Sozietatearen dokumentazioan ez dago jasota kideek, lehenengo eta behin, eragiketaren hasierako izaera defizitarioa eta bigarren, sinatutako kontratuak Azkoitia Lantzen S.A.-ri zekarkion horren arrisku egoera larria, eroslearen aurrean zuen erantzukizun horretatik eratorritakoak, ezagutzen zituztela kreditatzea ahalbidetzen duen ezertxo ere.

Dena den, sektoreko lurzoruak besterendu baino lehen, udal sozietateak horien eskurapena formalizatu behar zuen zegokion eskritura publikoa emanaz, izan ere, une hartara arte soilik aipatu esparruaren jabe gehiengodunekin kontratu pribatu bat sinatu zen. Zentzu horretan oztopo handiena hondakindegia ixtearen eta itxi ondoren mantentzearen ingurumen betebeharrak betetzea zen.¹⁴

Azkoitia Lantzenek, 2009ko otsailaren 25ean adostu zuen Eginoberriko lurzoruak XX eta XX jaun-en –ber-en izenean, beren seme-alaben izenean eta hondakindegia-ren titularraren izenean- eta Azkoitia Lantzen S.A.-ren artean eskualdatzearen eskritura publikoa formalizatzea, eta era berean, Azkoitiko notariotzan sinatu beharreko testua ere onartu zuen.

Hondakindegia-ren titularrak eta XX eta XX jaun-en ingurumen betebeharrei dagokienez, sinatu zen eskriturak ondoko klausula jasotzen du, 2008ko apirilean sinatu zen kontratu pribatua aldatzen duena, eta horren testua ondokoa da: “Horregatik, espreski jasoarazten da XX jaunak eta XX jaunak, hondakindegia-ren titularrak merkataritza enpresarekin batera eta modu solidarioan, ondorio guztietarako eragindako lurzatiaren titular gisa, aipatutako merkataritza enpresak garatutako industria jarduera dela-eta lurzatiaren kutsadura garbitzetik eratorritako kostu ekonomiko guztiak beren gain hartuko dituztela, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legean araututa dagoen bezala, eta espreski ixteko eta itxi ondorengo mantentzea burutzeko konpromisoa eta betebeharra hartzen dute beren gain.

Era berean, eta hondakindegiko instalazioetatik datozen lixibiatuen arazketa, aurretratamendua eta isurketa lanei dagokienez, egin diren azterketen arabera, horien kostua bostehun mila euroko (500.000) zenbatekoan ebaluatzen da. Parte-hartzaileek hitzartu dute Azkoitia Lantzen, S.A. entitatea izango dela arazketa, aurretratamendua eta

¹³ Sozietateak egindako 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak dio “ez dela kontularitzan kontzeptu honen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu, ingurumen obligazioak betetzeko arduraduna kutsadura eragin duena baita, eta ez Azkoitia Lantzen, SA. Honenbestez, ez da gertagarria datozen ekitaldietan kontzeptu honekin gastu gehigarri esanguratsuak sortzea.”

¹⁴ Erosketa 2011ko abuztuaren 2an dago eskrituran jasoa, 2011ko uztailearen 18an birpartzelazio proiektua onetsi ondoren.



isurketa lan horien osoko kudeaketa egingo duena, baina horien kostuaz eskualdatzaileak arduratuko dira; hori dela eta, zenbateko hori une honetan ordaintzen dute XX eta XX jaunek, erosleak ordaintzeke duen prezioaren zatitik kenduz.

Era berean, hondakindegia instalazioei egozgarria zaien kutsaduraren eragile eta arduradun gisa, aplikagarria den legediak zehazten dituen betebeharrak eta eginkizun guztiak hartzen dituzte beren gain, horietan ez direlarik barne hartzen hiritartze eta eraikuntzaren exekuziotik eratorritzen direnak, beraz, lursailak saltzeak ez ditu aipatu saltzaileak, inolaz ere, orain eskualdatzen diren lursailen hondakindegia erabileratik eratorritzen diren lege erantzukizunetatik salbuesten, eta hondakindegia ixteko eta lursailak egokitzeko derrigorrezko lanak ahalik eta azkarren burutzeko betebeharrak eta konpromisoa hartzen dute beren gain, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen irizpide eta epeen arabera, eroslea erantzun orotik eta esparru orotan salbuetsiz betebeharrak hori ez betetzeagatik.

Klausula horren interpretazioak, eta hondakindegia titularraren aldetik bere betebeharrak behin eta berriz ez betetzeak, sozietatearentzat larriki kaltegarria den egoera bat sorrarazi du: batetik, hondakindegia titularrak uko egin dio, ez soilik hondakindegiko lizibiatuak arazteari, baita 2010eko ekainaren 10eko Ingurumen Baimen Bateratuan jasotzen diren hondakindegia itxi ondorengo mantentze betebeharrak guztiak betetzeari ere (bi milioi euroko abal gordailua, milioi bat euroko aseguru kontratua, berrikuspenak, administrazioaren aurrean solaskide baten izendapena eta abar); arrazoi hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak bi zigor espediente eta exekuzio subsidiarioko espediente bat ireki ditu. Bestalde, egoitza judizialean auzi bat dago, xede gisa Azkoitia Lantzen eta hondakindegia titularraren erantzukizunak argitzea duena, lege aldian zehar (gutxienez 30 urtean) lizibiatuen arazketari dagokionez, non Azkoitia Lantzen-ek agerian jarri duen lizibiatuen kudeaketan bere erantzukizuna eskrituran adostutako 500.000 euroraino iristen dela.¹⁵

Dena den, Eginoberriko lurzorua eskuratzeak Azkoitia Lantzen egoera zail batean utzi dute, izan ere, lurzorua edukitzea edo jabe denez, indarrean dagoen legediaren arabera, erantzukizun subsidiarioaren mendean egon liteke, eta gorabehera horren aurrean sozietateak ez du inolako aurreikuspenik kontuan hartu, izan ere, adierazitako erantzukizunaren zenbatekoak (15.613.587,60 euro, baieztatu ez den 5.100.000 euroko horizonte posible batekin) eta dokumentu honetan deskribatutako gainerako betebeharrak, berehalako porrot egoera batera eramango lukete.¹⁶

¹⁵ Udalak ez digu auzi horri buruzko inongo agiririk eskuratu. Udala 2011ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioaz ari dela interpretatu da, zeinaren arabera Azkoitia Lantzen, SAK 2012an zabortegiko jabearen aurka demanda jarri zuen bere gain hartutako kostuen gehiegikeria ordain ziezaion eta ingurumenarekiko betebeharrak bete zitzaizkien; aipatutako kontuetan esaten da zehazki ez dela eskatutako kopuruei dagokionez inongo kobrantza eskubiderik erregistratu.

¹⁶ Sozietateak egindako 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak dio "ez dela kontularitzan kontzeptu honen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu, ingurumen obligazioak betetzeko arduraduna kutsadura eragin duena baita, eta ez Azkoitia Lantzen, SA. Honenbestez, ez da gertagarria datozen ekitaldietan kontzeptu honekin gastu gehigarri esanguratsuak sortzea."



Egoera hori ikusirik, 2009. urtearen amaieran, sozietateak presidente jaunari ahalmena eman zion, udal idazkariaren eta XX legelariaren laguntzarekin, empresa erosleak sinatutako kontratuaren edukia berriro negoziatu zezaten, hondakindegia zegokionean Azkoitia Lantzen edozein erantzukizunetik salbuetsiz.

Zenbait hilabetez negoziatu ondoren eta modu paraleloan, Azkoitia Lantzenek, 2010eko abenduaren 21ean ospatutako bileran, XXrekin kontratua berritzeko dokumentu bat onartu zuen, urte bereko abenduaren 22an sinatu zena, eta horren arabera:

- Hondakindegia zegoen lurzatia ez zen, hasiera batean, eskualdatuko zena. Erosketa aukera bat eratu zen eta hori betebeharrak bihurtuko zen harentzat behin horrekin lotutako ingurumen arazoak konpontzen zirenean, zegokion lurzorua Kalitate Adierazpenaren bidez. Lurzatiaren prezioa 1.900.000 eurotan ezarri zen.
- Hondakindegia eragiten ez zion Eginoberriko lurzorua zatia eskualdatu zen, 2.100.000 euroko prezioaren trukean.
- Eskualdaketa, eteteko baldintza batzuen mende egongo zen, ondokoak: hondakindegia gainean ingurumen egokitzapenerako lan batzuk gauzatea, zeintzuen helburua libiatuen kopurua murriztea den; lur mugimenduen obrak esleitzea, eta hondakindegia zati baten gainean azalera hiritartzeko lanak esleitzea, ondoren erabiltzeko, haren zati mugatu baten gainean zor eskubide batez baliatuz.
- Azkoitia Lantzen-ek ez du erantzungo empresa eroslearen aurrean XX, XX eta hondakindegia titularraren ez betetze posiblei dagokienez.

Kontratu hori eskritura publikoan jaso zen 2011ko abuztuaren 2an.

2010eko ekitaldiari dagozkion sozietatearen urteko kontuek ez dute barne hartzen, ez beren memorian ez beren idazpenetan, ondokoari buruzko informaziorik:

- Eginoberriko lurzoruen eskurapen kostuen arteko tartetik eratorritako behin betiko ondare galera, jada HKEE-ak kuantifikatu duena.
- 2. lurzatiaren gainean zuen erosketa aukera ez gauzatzetik erator litekeen galera (behin-behinekoa), izan ere, hondakindegia titularrak ingurumen konpromisoak ez betetzeak ezinezko egiten du erosketaren xede diren eta 1.900.000 eurotan ebaluatu diren hondakindegia datxezkion lurzoruen Kalitate Adierazpena ematea.
- Azkoitia Lantzen-ek eduki lezakeen erantzukizun subsidiarioa, hondakindegia hartutako lurzoruen jabe titularra izateagatik, hondakindegia titularrak bere ingurumen konpromisoak ez dituelako bete, indarrean dagoen legediaren arabera.¹⁷

¹⁷ Sozietateak egindako 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak dio “ez dela kontularitzan kontzeptu honen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu, ingurumen obligazioak betetzeko arduraduna kutsadura eragin duena baita, eta ez Azkoitia Lantzen, SA. Honenbestez, ez da gertagarria datozen ekitaldietan kontzeptu honekin gastu gehigarri esanguratsuak sortzea.”



ONDORIOAK

Azaldutako guztitik, ondorioztatzen da Kontabilitateko Plan Orokorra onartzen duen eta 2008ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko 10. Balorazio Araua, zuhurtzia printzipioa ezartzen duena, erabat eta guztiz urratu dela, eta gainera ez duela, inolaz ere, enpresaren irudi zehatza islatzen.

Aztergai dugun urtea, 2010, higiezinaren krisia areagotzen joan zen urtea izan zen, 2008. urtean hasitako bideari jarraiki. Horrela, Espainian KPMG zerbitzu profesionalen enpresa ezagunak egindako “Espainia Enpresak 2010-2011” txostenean, ondoko bi testuak irakur genitzakeen:

- “Espainiako ekonomiak 2008an, nazioarte mailan urtebete lehenago hasi zen krisialdi baten lehenengo astinduak sentitu zituen. Hasiera batean doikuntza soil gisa jo zena azkenean krisialdi sakon bat bihurtu zen”.
- “Azpiegituren eta eraikuntzaren sektoreak 2010. urtean salmenta garbietan jasan zuen beherakada handiena eta 2011. urtean hobekuntzarik aurreikusten ez duen sektore bakarra da.”

Gainera, Martínsa-Fadesak bezalako eraikuntza enpresa handiek edo Don Piso bezalako higiezinaren enpresek hartzekodunen konkurtsoa eskatu zuten jada, eta higiezinaren prezioen etengabeko beherakada islatzen zuten txostenak zeuden, esate baterako “Fotocasa.es” higiezinaren indizearena, Nazioarteko Diru Funtsaren erreferentzia iturria; honek ezartzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren batez besteko prezioak % 14,9 jaitsi egin zirela 2010ean, 2006ko otsailean izan zuten maximoarekin alderatuta.

Ziurgabetasun egoera honek bere isla zuen Azkoitia Lantzen S.A. iraganean sinatutako kontratu pribatuak betearazteko izaten ari zen zailtasunean, jada Epaitegiaren beraren txostenean jasotzen zena, izan ere, batzuk berriro negoziatzen ari zen eta beste kasu batzuetan prozesu judizialak irekita zeuden. Era berean, aurreikusita zeuden hirigintza prozesu batzuen epeak ere luzatzen ari ziren eta ekitaldia ixterakoan, hornitzaileei egin beharreko ordainketen atzerapenek Merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legeak ezartzen duen legezko maximoa gainditzen zuten, 3.442.971,51 euroko zenbatekora iristen baitziren guztira.

Era berean, aipatu Errege Dekretuko 15. zenbakiko Balorazio Araua ere ez da betetzen, zuhurtzia printzipioa eta enpresaren irudi zehatza arautzen duena, eta inkongruentzia bat dago antzemandako hutsen eta behin-behineko txostenean islatutako ondorioen artean.

Aipatu Kontabilitate Plan Orokorreko 15. zenbakiko Balorazio Arauak, “Hornidurak eta kontingentziak”, ezartzen du “enpresak hornidura gisa onartuko dituela, Kontabilitatearen Esparru Kontzeptualean jasotako definizioa eta kontabilitate erregistro edo onarpen irizpideak betez, bere zenbatekoari edo baliogabetuko diren datari dagokienez zehaztugabeak diren pasiboak. Hornidurak lege edo kontratu xedapen batek edo betebeharrinplizitu edo tazito batek zehatz ditzake. Azken kasu horretan, bere sorrera enpresak hirugarrenetikiko sortutako baliozko igurikimenean, hark betebeharr bat bere gain hartzean kokatzen da.



Urteko kontuen memorian aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren beste betebeharrak batzuekin lotuta enpresak dituen kontingentzien berri eman beharko da.”

Horrenbeste ziurgabetasun egoeren aurrean hornidura gabezia dagoela baieztatu da, non enpresatik irten zitezkeen baliabideak kontuan har zitezkeen, eta kasu ugari aipa daitezke: Eginoberri, Intsausti eta Txalonerrekan, besteak beste, lurzoruak eskuratzea...

II.2.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- ABEEren kideak Azkoitia Lantzen S.A.-ri aipatu zenbatekoa ordaintzeko betebeharrari dagokion 672.000 euroko zorrari dagokionez, Txalonerreka aldi baterako enpresa elkartearen desegitea eta likidazioa izeneko dokumentuan jasotako akordioen ondorioz, puntu honi dagokion alegazioa III.7 puntuari dagokion alegazioan, udal sozietate publikoaren barne kontrolaren sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzkoan, argudiatzen da.

2.- Sozietateak 2010eko abenduaren 31n bere gain hartutako konpromisoak.

1.- Jarraian Azkoitia Lantzen S.A.-k, 2010eko abenduaren 31 baino lehen, bere gain hartutako konpromisoak zerrendatzen dira, 2010eko urteko kontuetan jasotzen ez direnak eta memorian aipatu ere egiten ez direnak; ez dira, halaber, horiek kuantifikatzen.

Konpromiso horiek kontuen memorian agertu beharko lirateke. Ondokoak dira:

2.1.- 9.1. Txalon Errekaren hiritartzea: 601.294,00 euro

Azkoitia Lantzen S.A.-k besterendu zuen, 2008ko azaroaren 7an egindako eskritura publikoaren bidez, eremuan zegoen lurzati bakarra, hiritartze kargarik gabe. Sozietateak 2010eko urriaren 27ko, hiritartze jardura Udalarari helarazi zion, eta lizitazio prozedura onartu egin zen 1,34 milioi euroko zenbatekoaren trukean, Azkoitia Lantzen, S.A.-ri zegokiolarik 601.294 euro finantzatzea; zenbateko hori bat dator lizitazio aurrekontuaren eta Udalarari Etxebizitza sailburuordeak 2010eko abuztuaren 10ean emandako 737.435 euroko diru-laguntzaren arteko tartearekin.

2.2.- 10.1. Txalon Errekaren hiritartzea: 5.053.055,97 euro

Bi merkataritza enprekin 2006ko abenduaren 29an eta 2007ko urtarrilaren 24an, hurrenez hurren, formalizatutako kontratuetan, sozietate publikoak hiritartze kargarik gabeko bi lurzati besterendu zituen. Birpartzelazioaren proiektua 2008ko abenduaren 26an onartu ondoren, merkataritza enpresa erosleek uko egin ziotenez salerosketaren eskritura publikoa egiteari, 2010eko ekitaldian prozedura judicial bat hasi zen Azkoitia Lantzen, S.A.-k eskatuta. Prozedura hori eten egin zen alderdien artean akordio batera iritsi ondoren, 2011ko urrian sinatu zutena. Akordio horren arabera etorkizuneko etxebizitzak entregatzeko gehieneko epe gisa 2022ko ekainaren 30a ezarri zen, eta sozietate publikoak 24 hilabeteko epea du hiritartze obrak gauzatzeko, horren gastuaren kalkulua 5,05 milioi eurokoa delarik eta besterendu diren lurzatiei % 46,18a egozgarria zaielarik.

Aipatu diren enpresekin lortu den akordioak etxebizitzak entregatzeko azken epe gisa 2022. urteko data ezartzen duen arren, unitate honi dagokion hiritartzearen exekuzioa ezinbesteko baldintza da 2. unitatea garatzeko; bertako lurzatiak Eusko Jaurlaritzari eta Etxegi XXI-ri (Kutxa) saldu zaizkie. Bi eskuratzailleek idatziz adierazi dute laster hasiko direla bakoitzaren sustapenekin, beraz, Azkoitia Lantzen 1. unitatearen hiritartze obren exekuzioa aurreratu beharrean dago, bere eskura ez dituen baliabide batzuekin, edo 2. unitatean dituen konpromisoak ezingo ditu bete, eta horrek erantzukizun bat ekarriko lioke, eta horri ere ezin dio aurre egin.¹⁸

2.3.- Txalon Erreka 10.1, Tallenta baserriaren kanpoko hiritartzea: 60.000,00 euro

A.29.3. M.U.A. 1 lurzati pribatuari dagokio. Konpromiso hori sozietateak eskuratu zuen XX anai-arrebekin egindako 2008-11-20ko kontratu pribatuaren aldaketaren arabera.

2.4.- Txalon Erreka 10.1. Tallentako errotoendaren eraikuntza: 466.666,19 euro

Konpromiso hori sozietateak 2006ko urriaren 24an onartu zuen konpromisoen dokumentuaren arabera onartu zen.¹⁹

2.5.- Egino-Berri 27. sektorea: Lixibiatuen tratamendua 15.613.587,60 euro (litekeena da 5.100.000 eurotara doitzea, enpresa batek egindako txostenaren aurreikuspenak betetzen diren ala ez kontuan hartuta)

Sozietateak 2009. urtean Egino-Berrin antzina zegoen Oinedertxoko hondakindegia zegoen lursail batzuk eskuratu zituen. Hondakindegia horrek altzairugintzako hauts geldotzak gordetzeko Eusko Jaurlaritzaren baimena zuen eta gaur egun itxita dago. Ingurumen Sailburuordetzak, 2010. urtean, hondakindegia ustiapenaren titularra zen enpresari, aipatu hondakindegia ixteko Ingurumen Baimen Bateratua eman zion eta lixibiatuen tratamendurako proposatutako metodologia jasotzen du.

Azkoitia Lantzen S.A.-ren eta lursailen jabeen artean 2009an sinatutako salerosketa eskrituran jasotako konpromisoak kontuan hartuz, sozietateak bere gain hartzen zuen lixibiatuak tratatzeko lanak burutzea, 500.000,00 euroko zenbatekoraino.

2010 eta 2011ko ekitaldietan zehar, aipatutako lixibiatuen tratamenduarekin lotutako gastuak burutu dira, baita ingurumenaren babesarekin lotutako beste batzuk ere, gutxi gorabehera 160.000 euro eta 485.000,00 euroko zenbatekoak, hurrenez hurren. Zenbateko horiek, aurreko ekitaldietan egindako beste batzuekin batera, Azkoitia Lantzen S.A.-k bere gain hartutako konpromisoak gaintzen dituzte, eta beraz, auzitara eraman du

¹⁸ Ez dizkigute idatzi horiek aurkeztu eta gainera, 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak dio “ez dela aurreikusi aipatutako urbanizazio lanak 2018ko urte ingurura arte egin behar izango direnik.”

¹⁹ Udalarekin hartutako konpromisoa da eta gainera, 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak jasotzen du “Tallenta biribilgunea urbanizatzeko kostuak, egun zenbatetsi gabe daudenak.”



hondakindegiaeren titularrak sozietateari ordain diezaion, bere gain hartutako kostuen gehiegizkoa dela eta, eta bere ingurumen betebeharrak bete ditzan.

Hala eta guztiz ere, Azkoitia Lantzen S.A. hondakindegiaek hartzen dituen lurzoruen jabea izateak, indarrean dagoen legediaren arabera, arduradun subsidiario bihurtzen du, horren titularra denak ez betetzeren bat burutzen baldin badu. Ingurumen Baimen Bateratuan hondakindegiaeren titularrari bere betebeharre aurre egiteko eman zitzaion epea 2010eko abenduan amaitu zela kontuan hartuta, urteko kontuek egoera hori islatu behar zuketena, bereziki larria delako.²⁰

2.6.- Intsausti esparrua: Hiri Antolamenduko Arauen 13. HE: 9.628.972,85 euros

Esparru horretan Azkoitia Lantzen S.A.-k Azkoitiko Hiri Antolamenduko Arauek antolamendutik kanpokotzat jo zituzten finka eta eraikin industrial batzuk eskuratu zituen, Intsausti 13.1. E.U.-an eta emaitza ondokoa izan zen:

- 1595. zenbakiko protokoloa duen eskritura, 2006ko abenduaren 22koa. Azkoitia Lantzen S.A.-k Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera % 50ean, industria pabilioi bati zegokion finka bat eskuratu zuten, nongo orubeak, eskrituren arabera, 7.663,62 m² hartzen dituen, guztira 5.443.472,70 euro gehi BEZa prezioaren trukean. Aipatu finka 1995etik, hogeita bost urterako, alokatuta dagoenez, Azkoitia Lantzen S.A. errentatzaile gisa subrogatu da, bere gain modu eskusiboan hartuz joanarazteagatik legezkiokkeen kalteordainak.
- 787. zenbakiko protokoloa duen eskrituraren bidez, 2007ko ekainaren 28koa, Azkoitia Lantzen S.A.-k eta Gipuzkoako Foru Aldundiak % 50ean 5.027,38 m²-ko hiri finka bat eskuratu zuten, 5,172.413,80 euro gehi BEZa prezioaren trukean, Azkoitia Lantzen S.A.-ri zegokiolarik 2.586.206,90 euro gehi BEZaren ordainketa, ekitaldi horretan ordaindu zuelarik bere erdiari zegokion BEZ osoa eta 606.209,90 euroko zenbatekoa, 1.980.000 euroko zenbatekoaren ordainketa hiru urtez geroratuz, eta hori zenbateko horren balioa zuen banku abal baten bidez bermatuz.
- Egun berean, 2007ko ekainaren 28an, Azkoitia Lantzen S.A.-k eta hiru merkataritza enpresek kontratu pribatu bat sinatu zuten. Horren bidez, udal merkataritza enpresak lau finka eskuratu zituen Intsausti esparru berrian, guztira 7.655,58 m²-ko azalera zutenak, 9.628.972,85 euroko prezioan, eta aurreko salerosketari zegokionez, geroratutako ordainketa gauzatzeko modua aldatu zuen, eta horren ordezkapen gisa lehen aipatutako enpresa bati 6 etxebizitza libre entregatu zizkion, bakoitzari dagokion garajearekin, eta era berean, eskritura publikoan sinatutako kontratuarekin alderatuta, modu berri batean, bere gain hartu zituen "kutsatutako lurzoruak berreskuratu eta egokitzetik eratortzen diren kostuak". Udal sozietateak betebeharrak gisa ezarri zituen kontraprestazioak honela xehatzen dira:

²⁰ Sozietateak egindako 2011ko ekitaldiko urteko kontuen txostenak dio "ez dela kontularitzan kontzeptu honen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu, ingurumen obligazioak betetzeko arduraduna kutsadura eragin duena baita, eta ez Azkoitia Lantzen, SA. Honenbestez, ez da gertagarria datozen ekitaldietan kontzeptu honekin gastu gehigarri esanguratsuak sortzea."



- Industria enpresak kokatuko diren Oñartxo 26. sektorean 2,1 milioi euroko balioa duen lurzati bat entregatzea. Konpromiso horri aurre egin ahal izateko, Azkoitia Lantzen, S.A.-k Urola Erdiko Industrialdea, S.A.-ri lurzati bat erosi dio sektore horretan 1,7 milioi euroko zenbatekoan, sozietateak 2009ko uztailaren 28an adostutakoa. Gainera, alde saltzaileek beren burua behartzen dute eraikuntza lizentzia eskatzera lurzatia eskualdatzen denetik sei hilabeteko epean eta pabilioi berrien obrak hastera hiritartze obrak amaitzen direnetik gehienez ere sei hilabeteko epean. 2010eko azaroaren 10ean eskatu zuen lizentzia hori eta alkatetzaren aginduz eman zitzaion 2011ko uztailaren 11n. Oñartxo sektoreko hiritartze obrak, eraikuntza hastea ahalbidetzen zutenak, 2011ko ekainaren 28an amaitu ziren, eta hala eta guztiz ere, 2011ko urriaren 19an Udalean idatzi bat jaso zen, pabilioia eraikitzeari uko egiten ziola adierazten zuena.
